

# BOTEREARI

buruz

**BOTERE SOZIALA ETA  
BOTERE-EGITURAK  
ULERTZEN**



**crea**

Srilatha Batiwala





**Egilea: Shrilata Batliwala. CREA.** Giza Eskubideen Nazioarteko Erakunde Feminista.

Eskerrak ematen dizkiogu **CREA**ri bere liburua itzultzeko aukera emateagatik eta, horrela, bere ezagutzak partekatu ahal izateagatik.



Argitalpen hau **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren** finantzaketarekin egin da.



Antropologia Feminista  
Ikerketa Taldea  
Research Group

Bihotz-bihotzez eskerrak ematen dizkiogu **Maggieri, UPV/EHU - Euskal Herriko Unibertsitateko** antropologoari, hitzaurrea egin izanagatik.



*Euskarazko eta gaztelaniazko* bertsioen **argitalpena: medicusmundi gipuzkoa.**

Serapio Múgica, 33 – Behea  
20016 Donostia – San Sebastián  
<https://medicusmundigipuzkoa.eus/eu/gipuzkoa@medicusmundi.es>

## HITZAURREA

Margaret L. Bullen

AFIT (Antropologia Feminista Iker Taldea), UPV/EHU

Ohore eta plazer handia da, Medicus Mundi Gipuzkoa GKEaren laguntzailea den eta Gizarte Eraldaketarako Lidergo Feministan aditua den Srilatha Batliwalaren liburu txiki eta eder honen euskarazko edizioaren hitzaurrea idaztea. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitate-  
tik aspalditik ari gara Medicus Mundi Gipuzkoarekin lanean, batez ere Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia (HEFA) Fakultatearen eta MMGko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Departamentuaren artean mantentzen dugun harreman estuan.

Liburu honen ezaugarriak, bere argitasuna, ideia abstraktuak azaltzeko duen abilezia eta hainbat aktibismo eta testuinguru sozio-geografikotan duen aplikagarritasuna dira. Bere burua umiltasunez eta umorez “amona feminista” gisa definitzen duenak idazten du. Eta mirespenez eta errespetuz entzuteko amona bat da; izan ere, gure adineko askok bezala, urte askotan burututako aktibismo eta jardueraren profesional eta akademikoagatik ezagutza zabala eta sakona du. Eta asko du kontatzeko.

Eskuliburu honetan, mundu guztiak ulertzeko moduan, hitz erraz eta irudi argiekin boterearen adierazpenen eta egituren konplexutasuna azaltzen du. Edozein irakasle edo autorearentzat, boterearen gaia jorratzea eta gure gizarteetan emakumeak menpean mantentzen dituzten genero-sistemak argitzea lan izugarria izango litzateke baina Batliwalak erraz egiten du hori, jaioterri duen Indian ez ezik, mundu osoko milaka emakumeren eguneroko esperientzian murgildutako azalpen argiekin.

Sheela txikiaren adibidean, amona Srilatha bere amonarekin izaten zituen hizketaldietan islaturik ikusten dugu, txikitan etengabe galderak egiten zizkionean. Adineko emakume jakintsuak bilobari, gainerako familiak egin nahi zuen bezala, isiltzeko agindu beharrean, galdezka jarraitzera animatzen zuen, bere mundua zalantzan jartze-

ra, tradizionalki ama eta emazteen menpeko papera arbuizatzen eta bere diru-sarrerak bilatzera, inoren mende egon beharrik ez izateko.

50. hamarkadako Indiako neskato baten kontakizun honek euskal kostaldeko, landako eta hirietako gure amonen irudia itzultzen digu. Ez bakarrik haien familiak aurrera ateratzeko borrokan, baita nortasun eta patu propio bat eratzeko borrokan ere, emakumeen eskubideak defendatzeko, beren bizitzari buruz erabakitzeke, harremanak aukeratzeko eta beren gorputzak kontrolatzeko. Teresa del Valle Euskal Herrian, Srilatha Batliwalak Indian bezala, boterearen kontzeptua azaltzerakoan, giltzarri gisa, erabakitzeke gaitasuna azpimarratzen dute: nork erabakitzen duen eta nork duen aukera erabaki hori hartzeko, bere buruaz, bere gorputzaz eta bere lanaz erabakitzeko,... Eta nork kontrolatzen duen gorputza, besteen lana.

Munduan gauden tokian gaudela, ziurrenik gu geu ere aitortuak sentituko gara, gure inguruko beste emakume batzuk entzuten, ikastera, lan egitera, independenteak izatera animatuz, aske izatera animatuz alegia.

Batliwalak ematen dituen adibideak, itxuraz, gurearekin zerikusirik ez duten testuinguruetatik datozelako, Indiatik, Pakistandik, Hondurasetik..., gure herrialdean baino pobrezia gehiago eta botere gutxiago dagoela pentsatuko genuke. Baina liburutxo honek ematen digun boterearen azterketa eta azalpena munduko beste edozein testuingurutan aplika daiteke, eta, beraz, gure ingurunean bertan. Izan ere, distantziak, egileak erakutsitako botere ezkutu eta ikusezinararen adierazpenak argiago ikusten laguntzen digu.

Beti gustatu izan zait Michel Foucaulten ideia: boterea ez da aberastasun edo arma kontua, ez dago diru pilo batean edo pistolaren presiopean bakarrik. 80. hamarkadan Peruko herri gazteetan lan egiten nuenean, herri sektoreek antolatzeke zuten boterea sumatu nuen, emakumeek mobilizatzeko zuten indarra. Orduan ulertu nuen boterea ez dagoela puntu batean, lausoa dela eta sare konplexuen bidez zabaltzen dela. Clifford Geertzaren kulturaren ideiarekin bat dator, eta hori ere baliagarria iruditu zait beti: kultura, gizakiok egingo esanahien armiarma-sarea dela baina, horretan harrapatuta

geratzen garela. Armiarma eta eulia gara aldi berean armiarma sare horretan.

Hau da Batliwalak aipatzen duen botere ikusezina. Gure eguneroko bizitzak markatzen dituzten baina ideologiek erreproduzitzen dituzten arau eta erregela sozialen sarean atzean jarduten duen boterea, erakunde batzuek, hala nola estatuak, merkatuak eta hezkuntza-sistemak mantentzen dituztenak. Baina sare horiek pertsonak egin ditugu, eta Foucaultek dioen bezala, botere-ariketa bat dagoen tokian, erantzun bat dago, eta askotan erresistentzia dago. Mundu guztiak, baliabide gutxi izan arren, Sheela neskatoak bezala, bere izaeran, bere baitan, botere apur bat du. Beste hitz batzuetan, agentzia deitzen duguna.

Eta hau da liburuaren gakoetako bat: barneko boterearen eta botere kolektiboaren arteko batura, emakume baten indarra -itxuraz baliabiderik gabea- oldar kolektibo bat sortzeko beste emakume batzuen indarrarekin elkartzan denean pitzen den txinparta da.

Hau da mugimendu feministaren indarra, kolektibitatea.

Armiarma-sarearen ehuna desegiteko aukera da. Del Valle ere horretara gonbidatzen gaitu etxe patriarkalean arrakalak bilatzera edo gizarte-egituren hormetako zirrikituak bilatzera animatzen gaituenean, bertan aldaketa sar baitaiteke.

Eta horrela egiten du Batliwalak. Liburuan zehar boterearekin ditugun esperientziei buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu; marrazkiak eta grafikoak tartekatzen dira puntu konplexuenak argitzeko eta gure oharrak idazteko orriak aurkezten dira. Zalantzarik gabe, oso eskuliburu erakargarria, ulergarria eta baliagarria da botereak gure bizitzetan eta gure gizarteetan,... Indian, Euskal Herrian edo Perun,... duen funtzionamendua xehetasunez aztertzeke, eta, hori egiterakoan, gizartearen eraldaketarako botere-harremanen konfigurazio berria lortzen laguntzen du.

Margaret L. Bullen

Hondarribia, 2023ko ekainaren 24a.

Aktibismotik  
pertsonen bizitza  
aldatzen edo haiek  
aurre egin beharreko  
bidegabekeriei kontra  
egiten saiatzen  
garenean, **botere-  
ekuazioak** aldatu  
nahian ari gara.

# Edukia

## BOTEREARI BURUZ

Sarrera	8
Zer da?	16
Non aritzen da?	26
Nondik dator?	36
Zer itxura du?	46
Nola adierazten da?	56
Nola funtzionatzen du?	72

# BOTEREA ULERTZEN

Aktibista den eta aldaketa sozialaren alde lan egiten duen edonorentzat, oso garrantzitsua da **boterea** botere-egituren eta -harremanen arabera **ulertzea**.

Oraindik garrantzitsuagoa da, emakumeen eskubideen, genero-berdintasunaren edo genero-identitate, sexu-orientazio, arraza, klase, kasta, etnia, erlijio, nazionalitate, ezgaitasun, lanbide (adibidez, sexuaren langileak), kokapen (adibidez, landakoa edo hirikoa) edo beste edozein faktorerengatik marjinatua, diskriminatua edo baztertua den edozein pertsonaren eskubideen alde lan egiten duenarentzat.

Baina “boterea” oso ideia abstraktua da, kontzeptu zabal eta koropilatsu bat. Pertsona bakoitzak gure erara ulertzen dugu, jorratzen ditugun gaien, lan egiten dugun pertsonen, horri buruz irakurri izan dugunaren arabera edo boterearekin izan dugun esperientzia pertsonalean oinarrituz.

Eskuliburu honen helburua, nahaste hori argitzea eta botereari buruzko ulermen partekatu bati begira urratsak ematea da. Horrela, justizia sozialarekin eta generoarekin konprometituta gauden pertsona guztiok, gure arazo partikularrak edo testuinguru ekonomiko, politiko eta kulturalak edozein direla ere, gizartean aritzen den botereari buruzko definizio eta analisi osoago eta partekatuago batetik abiatuz, gure estrategiak eraiki ahal izan ditzagun.

**Aktibista gisa eta, geroago, akademika gisa, zehazten nahiko abstraktu eta zailak ziren kontzeptu eta fenomeno sozial ugarirekin aurkitu nintzen lanean, behin eta berriro. Boterea, demokrazia, eskubideak, ahalduntzea, berdintasuna, diskriminazioa, etab. Guztiak ideia handiak dira baina, pertsonen arabera esanahi ezberdinak dituzte. Horiek ezin dituzu apal batean edo denda batean aurkitu eta esan: “Horra! Horixe da, hain zuzen, demokrazia (edo berdintasuna, eskubideak, boterea, gaikuntza edo diskriminazioa)”. Izan ere, ideia horietako asko errazago identifikatzen dira falta direnean edo urratzen direnean. Badakigu zer den desberdintasuna, nola sentitzen den ezintasuna eta zer den gure eskubideen urraketa bat. Horrexegatik, ideia horien nahasmena, “lausotasuna” murrizten lagunduko diguten oinarrizko bost galdera bururatu zitzaizkidan.**



## 1 ZER DA?

Nola definitzen dugu boterea? Zer da botere soziala, edo boterea gizarteen eta giza-harremanen testuinguruan? Galdera horrek, ulertu nahi dugun kontzeptuaren, ideia-aren edo fenomenoaren definizio argiago batera heltzen laguntzen digu.

## 2 NON DAGO?

Non aurkitzen da botere soziala eta zein tokitan kezkatzen gaitu gehien? Horrek ez du, besterik gabe, kokapen geografiko edo politiko bat esan nahi, herrialde bat, hiri bat, herri bat edo toki fisiko jakin bat, adibidez. Botereari buruz aritzean, izan liteke, toki sozialei buruz (familia edo komunitatea, esaterako) edo kezkatzen gaituen sektoreari edo populazioei buruz (langileak, landako emakumeak edo osasungintza, hezkuntza eta nekazaritza sektoreak) jarduten egotea. Galdera horrek, ulertu nahi dugun kontzeptuari muga espazialak, demografikoak zein sozialak ezartzen laguntzen digu ere.

## 3 ZER ITXURA DU?

Zeintzuk dira boterearen aurpegi edo forma ezberdinak? Horrek fenomenoaren funtsezko trazuak eta ezaugarriak deskribatzen eta aztertzen laguntzen digu, kokatu dugun lekuan agertuko direnak.



## 4 ZEINTZUK DIRA HORREN ARRAZIOIAK EDO ITURRIAK?

Zerk ematen dio botereari lekua? Zeintzuk dira gure gizarteetan botere-egiturak sortzen dituzten arrazoi sakonak edo faktoreak? Zeintzuk dira botere-egitura horiek eusteko edo mantentzeko erabiltzen diren mekanismoak? Galdera horri erantzutea funtsezkoa da ulertzen saiatzen ari garen fenomenoaren sustraietara heltzeko.

## 5 NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Nola jarduten du botereak gizarteetan? Nola zehazten da pertsona eta talde ezberdinen botere-maila? Nola erabakitzen du botereak hierarkia sozialean edo ekonomikoan dugun tokia? Nola definitzen gaitu sozialki botereak? Eta nola zehazten du botereak gainerakoekin erlazionatzeko edo besteak tratatzeko dugun modua? Nola moldatzen gaitu psikologikoki botereak? Nola moldatzen du gure buruarekiko eta gainerakoekiko nola sentitzen garen? Galdera hauei erantzunez, aztertzen ari garen fenomenoak eragiten duen dinamika hobeto azertu eta ulertu ahal izango dugu. Nori eta nola eragiten dion, nork irabazi edo galtzen duen, eta gizarteetan edo ezarri ditugun mugen barruan nola funtzionatzen duen identifikatzen laguntzen digu.

## ZERGATIK DA GARRANTZITSUA BOTEREA HOBETO ULERTZEA?

Aktibista gisa, inguruan ikusten dugun bidegabekeriak, desberdintasunak, marjinazioak, bazterkeriak, diskriminazioak, estigmak eta indarkeriak kezkatzen gaituzte. Baina, boterea horietako bakoitzaren erdigunean, arazo sozial bakoitzaren erdian dagoela aitortzen al dugu beti? Konturatzen al gara bidegabekeria eta desberdintasun mota guztiak, boterearen **adierazpen** bat edo botere-egituren **sintoma** bat direla? Errealitatea da, boterea giza harremanen eta gizartearen antolakuntzaren erdigunean dagoela. Horregatik, aktibismotik pertsonen bizitza aldatzen edo haiek aurre egin beharreko bidegabekeriei kontra egiten saiatzen garenean, **botere-ekuazioak** aldatu nahian ari gara.

Gehienok, neurri batean, boterea identifikatzen eta ulertzen dugu. Baina, maiz, boterea modu ikusgarri edo zuzen batetan adierazten denean, eta ez horrek hartzen dituen beste era konplexuago batzuetan. Adibidez, emakumeen baliabide ekonomikoaren falta haien familietan ahotsik ez izatearen arrazoietako bat dela ikusten dugu, edo jarrera sozialek semeak lehenesteko eta alabak diskriminatzeko joera eragiten dutela. Horren aurrean, emakumeek diru-sarrerak edo mikroredituak lortzeko programak abiarazten ditugu, edo alaben eskubideen inguruko kontzientziakantainak ere. Baina, neurri batean lagungarriak izan diren arren, oinarritzko jarrera sozial horiek indarrean jarraitzen dutela konturatu gara. Emakumeek gehiago irabazten dute baina euren senarrek haien diru-sarrerak kontrolatzen dituzte.

Hau, gure estrategiak arazo hauen **sustraira** beharrean, hauen **sintometara** zuzentzen genituelako gertatu da. Botere-ekuazioak eraginkortasunez aldatu nahi baditugu, botereari buruzko ulermen askoz sakonago eta argiago bat izan behar dugu. Ulermen hori kontzientziario handiago batetik etorriko da: boterea zer tokitan jarduten den, zer aurpegi edo forma hartzen dituen, eta nola eraikitzen diren eta irauten duten botere-egiturek. Emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren aldeko aktibismoarentzat, boterea bere dimentsio guztietan ulertzea bereziki garrantzitsua da; **boterearen dimentsio ikusezin eta ideologikoak**, genero-diskriminazioa mantentzeko baliabideetarako sarbidea izatea bezain garrantzitsuak direlako.

**Galdera** havei erantzuteak, lan egiten dugun komunitateetan, eremuetan edo kontu zehatzetan botereak duen funtzionatzeko moduan eragiteko erarik onena aurkitzen laguntzen digu. Adibidez, boterearen dinamika, testinguru edo toki jakin batean, nola alda dezakegun arakatu dezakegu; edo nola sustatu eta babestu ditzakegun pertsona-talde zehatz baten eskubideak.

# 1

## ZER DA BOTEREA?

**Botere soziala,** norbanakoek edo taldeek nork zer jasoko duen, nork zer egingo duen, nork zer erabakiko duen eta agenda nork ezarriko duen erabakitzeke duten gaitasuna da.

Historian zehar, munduko hainbat bazterretan, filosofiatik, politikatik eta aktibismotik gizartean aurkitzen den boterea definitzen eta aztertzen saiatu dira. Definizio hauetako batzuk nahiko sinpleak ziren, eta beste batzuk oso konplexuak. Akademikoeak eta aktibista feministek aurrerapauso handia eman zuten botere soziala mundu mailan ez ezik, gure etxeetako testuinguruetan eta gure harreman pertsonaletan ere aritzen dela konturatu zirenean.

Definizio hauek guztiak ikusten ditugunean, argi geratzen da boterea, nagusiki, alde bakarreko indar gisa eta beste pertsona batzuekiko kontrol gisa definitu izan zela denbora luzez. Gainerakoek ekintzak eta aukerak kontrolatzeko gaitasuna zuten gizarteko pertsona edo talde batzuk ziren. Era berean, boterea, nagusiki, **baliabideen** kontrola izatetik suertatzen zela uste zen. Lurrak zituztenek edo diru gehien zutenek, esaterako, botere gehiago zuten, baliabiderik edo lurrik gabekoek baino. Baina, denborarekin, boterea hori baino konplexuagoa dela ulertzera iritsi gara. Izan ere, gizarteak garatzen eta eraldatzen joan diren heinean, botere soziala ere. Gaur egun, botereak **kontrolarekin** ez ezik, **gaitasunekin** ere zerikusia duela konturatzten gara; eta, botere-egitura bat, hein batean, baliabideen kontrolean oinarritzen bada ere, baliabideek ez dute guztiz azaltzen zergatik hauek birbanatu arren, botere-ezberdintasunek jarraitzen duten.

Eguno errealitatean boterea definitzeko era on bat da, **BOTEREA**<sup>1</sup> pertsonak edo taldeek erabakitzeke edo eragiteke duten gaitasuna dela:



<sup>1</sup> Esker berezia Aruna Rao-ri eta David Kelleher-i, 2002

## NORK LORTZEN DU ZER?

Ez da baliabide kontu bat soilik; aukerak, eskubideak eta pribilegioak gizarte batean nola banatzen diren baizik. Gizarte batean botere sozialean edo generoan oinarritutako botere-egiturak erraz identifikatzen ditugu, lurra nork duen, eskolara nor doan, noren gaixotasunak esku hartzen diren lehenago edo denbora libre gehien izaten zeini uzten zaion erreparatzen badugu.

## NORK ERABAKITZEN DU ZER?

Erabakitzeko boterearen banaketa da, bizi garen espazioetan eta gure gizarteak gobernatzen dituzten erakundeetan. Boterea, neurri batean behintzat, alderdi desberdinei buruz erabakitzeko ahalmen handiena duenari dagokio: pertsona baten bizitzan (norekin edo noiz ezkondu, nor doan eskolara); etxe batean (zer landatu, non bizi, alokairuan zenbat gastatu, zer nolako lana izan diru-sarrerak lortzeko); herri edo hiri batean (herri edo hiriaren aurrekontua zertan gastatu, nork erabili dezakeen edateko uraren zein putzu, zein errepide konpondu, non kokatu komunak edo ospitalea); komunitate, kasta edo talde etniko batetan (zer arau eta ohitura aplikatu, gatazka bat nola konpondu); edo herrialdean (lege nazionalak, politikoak, aurrekontu-esleipenak).

## NORK EGITEN DU ZER?

Eskulanaren eta lanaren banaketa da, eta horiek funtsezkoak dira gizarteek bizirik iraun dezaten. Hemen, garrantzitsua da azpimarratzea boterea ez datorrela bakarrik ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituen eta diru-sarrerak lortzen diren ekoizpen-lanaren banaketatik (elikagaiak landatzea, fabrika bateko lana), baita ugalketa-lanetik ere (etxeko lanak, haurrak zaintzea, janaria prestatzea, ura eta janaria prestatzeko erregaia bilatzera joatea). Hori irakurtzen duen edonor ohartuko da, ia berehala, lan produktiboa eta ugalketa generoaren arabera banatzen direla gizarte gehienetan.

## NORK FINKATZEN DU AGENDA?

Gaur egungo munduan, botere sozialaren ia alderdirik garrantzitsuena bihurtu da. Garrantzitsua zer den eta zer ez den erabakitzeko boterea da, zer eztabaidatu daitekeen eta zer ezin den, zerk axola duen eta zerk ez. Agenda finkatzeko ahalmena, adibidez, komunikabideek azalean zer agertzen den, eta 4. edo 5. orrialdean zer agertzen den erabakitzeko moduan islatzen da. Agenda finkatzeko botereak eremu pribatuetan jarduten du, hala nola familia-eremuan, bai eta nazioarteko erakunde politikoak, gobernu nazionalak eta komunikabideak bezalako espazio publikoetan ere; askotan ezkutuan edo ikusezin jarduten du.

## NORENA DA AXOLA DUEN

### ERABAKITZEKO BOTEREA?

Batzuetan, erakunde edo espazio hauen erabakitzeiko boterea gatazkan sartzen da edo kontrajarri egiten da. Nazioko legelariak erabaki dezakete, adibidez, haur guztiek eskolara joan behar dutela, horien sexua edozein dela ere. Baina komunitateak, kastak, edo kontseilu tribal edo erlijiosoak erabaki dezake nerabezaroaren ondoren neskek eskolara joatea euren ohituren eta kulturaren kontra doala, bai eta familiako buruak (normalean, gizon batek edo adinekoa eta boteretsua den emakume batek) hori erabaki ahal izatea ere. Halako testuinguruetan, azken horren erabakitzeiko ahalmena nagusitzen da, kaltetutako neskek etxean eta komunitatean bizi behar baitute euren eguneroko bizitza. Parlamentu nazional baten erabakitzeiko boterea urrunekoa eta zentzugabea bilakatzen da erabaki horiek eragindako neskentzat.

## AGENDA EZARTZEKO BOTERE

### IKUSEZINA

Egunero, egunkariak edo telebista-kanalek eguneko albiste “garrantzitsuen” berri ematen dute. Suposatzen dugu, azalean edo albistegian ikusten ditugun lerro-buruak eta albisteak aurreko 24 orduetako gertaerarik garrantzitsuenak direla, nazio-mailako garrantzia dutela. Era berean, egunkariaren 4. edo 5. orrialdean agertzen direnak hain esanguratsuak ez direla susmatzen dugu. Beraz, adibidez, Lehen Ministroak Txinara edo Estatu Batuetara egindako bisita edo kirol-gertakari handi bat azaleko albiste da; aldiz, emakume nekazari pobretuen suizidioak edo talde gutxitu edo indigena baten aurkako eraso 5. orrialdean jakinarazten da. Baina hori komunikabideek agenda finkatzeko duten boterearen parte da. Zergatik ez da azala, nekazarien suizidioa edo komunitate jakin baten aurkako indarkeria? Zergatik da garrantzi gutxiagokoa politikari batek atzerrira egindako bisita edo kirol-ekitaldi bat baino? Norbait gure pentsamendua moldatzen ari da, agenda finkatzen, eta ia ez gara horretaz jabetzen.

## AGENDA EZARTZEKO NAZIOARTEKO

### BOTEREA

Orain dela 10 edo 15 urtera arte, munduko garapenari buruzko eztabaidetako erronka nagusia pobrezia nola desagerrarazi izaten zen. Eta orduan, aldaketa bat ematen hasi zen. Munduari eragiten dion arazo larriena klimaren aldaketa zela esaten hasi zitzaizkigun. Klima-aldaketak pobretuei eragiten diela egia bada ere, ez dira aldaketa hori eragiten dutenak, edo ez behintzat larriagotzen dutenak. Baina munduko liderrek eta alde anitzeko instituzio eta garapen-banku nagusiek klima-aldaketari buruz duten ikuspegiak eta komunikabideetan ematen zaion enfasiak ia ikusezin bihurtu dute pobrezia arazo handia. Gaur egun, oso gutxi entzuten dugu munduan 1.400 milioi pertsona pobrezian bizi direla (egunean 1,25 dolar baino gutxiagorekin), eta horietako gehienak emakumeak eta adingabeak direla. Ez dugu klima-aldaketa garrantzitsua ez denik esan nahi. Garrantzitsua da. Baina pobrezia klima-aldaketa bezain garrantzitsua, edo are garrantzitsuagoa da. Kontua zera da, agenda finkatzeko boterea dutenek, sarritan era ikusezinetan, gure mundu-ikuspegia moldatzeko, gure ustez garrantzitsua den horretan eragiteko, eta lehentasunak ezartzeko gai direla.

## FAMILIAREN AGENDA EZARTZEKO

### BOTEREA

Familia barruan ere, agendaren botereak pertsonen bizitzan eragina du. Malak 16 urte ditu eta oso ikasle ona da. Eskola amaitu eta medikuntza ikasi nahi du. Baina, bere gurasoek neska baten helburu nagusia ezkontzea eta ama izatea dela uste dute; bere komunitatean, gurasoekin hitzartutako ezkontza goiztiarra ohitura da. Gurasoen kezka da, Malak ikasketak amaitu aurretik senar egokirik aurkitzen ez badute, 21 urterekin ezin izango dela ezkondu. Malak medikuntza ikasketen gaia ateratzen duen bakoitzean, amak errieta egiten dio. Malaren inguruko solasaldi guztiak bere ezkontzari buruzkoak dira, ez bere ikasketei buruzkoak. Malak ezin ditu bere nahiak familiaren agendan sartu. Ez du erabakitzeke botererik.

# 2

## NON ARITZEN DA BOTEREA?

Botere soziala  
jendeak bere bizitza  
bizitzen duen  
espazio guztietan  
aritzen da.



## NOLA ARITZEN DA BOTEREA?



Gizartearen eraldaketarako aktibista gisa, botereak hiru harreman-esparrutan nola funtzionatzen duen ulertzeak, bereziki kezkatzen gaitu.

### PERTSONEN ARTEAN

Boterea pertsonen arteko harremanetan aritzen da, lagunartean, lankideen artean, ezkontza bezalako harreman intimoetan, eta familia bezalako espazio pribatuetan. Pertsonen arteko harremanetan aritzen den boterea interesatzen zaigu, hor sortzen baita emakume bezala identifikatzen diren pertsona gutziek jasaten duten indarkeriaren eta diskriminazioaren zati handi bat.

### TALDE SOZIALEN ARTEAN

Boterea nolabaiteko identitate bat partekatzen duten pertsona-taldeen artean eta horien bitartez aritzen da. Botere soziala, adibidez, genero-identitatean (gizonezkoak, emakumezkoak, pertsona transgeneroak), arrazan, kastan, klasean, sinesmen erlijiosoan, gaitasunean/ezgaitasunean, sexu-adierazpenean, kokapenean (herriko edo hiriko pertsonak) eta lanbideetan oinarritutako talde ezberdinak pertsonen artean aritzen dela ikusten dugu. Talde sozialen arteko boterea interesatzen zaigu, horrek hierarkia sozialaren, estigmatizazioaren, bazterkeriaren, diskriminazioaren, gatazkaren eta indarkeriaren sistemak sortu, pertsona batzuk esplotatuak eta beste batzuk menperatuak izatea ahalbidetzen baitu. Hauek dira boterea, pribilegioak eta eskubideak pertsona batzuei esleitzen dizkieten eta beste batzuei ukatzen dizkieten gizarte-boterearen egiturak.

## ALDERDI POLITIKO ETA EKONOMIKOEN ARTEAN

Boterea herrialde bateko eskualdeen artean aritzen da, herrialdeen edo herrialde multzoen artean, herrialde “garatuen” eta “garatzeko bidean” daudenen artean, “Iparraldearen” eta “Hegoaldearen” artean, eta ekonomikoki eta politikoki boteretsuak bihurtu diren “BEITH” bezalako lerrokatze berrien sorreran (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika). Horren barruan sartzen da edozein gobernu nazionalen kontroletik kanpo egon ohi diren talde korporatibo boteretsuak agertzea. Talde horiek gai dira politika nazionaletan beren alde eragiteko, baita herritarrak babestera zuzendutako legeak urratzeko ere. Gaur egungo munduan, alderdi politiko eta ekonomikoen artean sare terroristak eta talde fundamentalistak sartu behar ditugu; baita drogekin, pertsonekin eta armekin trafikatzan duten taldeak ere. Horiek guztiek botere handia eskuratu dute, bai gobernuen eta horien ordezkarien gainean, zein jende arruntaren bizitzaren gainean ere.

## PERTSONA BAKOITZAREN BARRUAN

Boterea norberaren barruan dagoela ere badakigu. Ez dago beste azalpenik, historian zehar pertsonak eta taldeak injustiziaren eta zapalkuntzaren kontra zergatik altxatu izan diren ulertzeko, baita aurre egiten zieten indarrak askoz boteretsuagoak zirenean, eta oso erraz zanpatu zitzaizketenean ere. Gure familiaren barruan ere, indar eta amore-iturri sakon batengana jotzen duten eta euren bidea egiteko tradizio eta arau sozial guztiei aurre egiten dieten banakako emakumeak ikusi izan ditugu: ezkontzera ukatu ziren emakumeak, bere hezkuntzarako eskubidearen alde borrokatu zutenak, ohitura bidegabeei aurre egin zietenak (adibidez, alargunen erretzeari, ezkonsaria eskatzeari, kasta-estigmei, sexu-indarkeriaren gaineko isiltasunari), eta haien itxuragatik, arrazagatik, etniagatik, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, ezgaitasunagatik eta abarregatik jasandako diskriminazioari aurre egin ziotenak ere. Inork ez zien emakume horiei horrelako gauzak egiteko boterea “eman”; beren barrutik atera zuten. Gutako bakoitzak boterea gure baitan dugu, aitortu edo erabili ez arren.

## BOTEREAREN INTERSEKZIONALITATEA

### Hodaren historia

Ostiral goiz bat zen. Hoda goizeko bostetan jaikia zen, polioak okertutako esku eta oinak garbitu zituen, eta goizeko otoitzak egiteko belaunikatu zen. Ondoren, sukaldera sua piztera eta familiarentzako goizeko bazkaria prestatzen hastera joan zen. Amaginarreba minutu batzuk geroago sartu zen sukaldean, eta Hodaren sukaldia erdizka eginda zegoela ikusita, goizeko otoitza ez egin izanaz salatu zuen. Zaplaztekoa eman eta ostikoka hasi zitzaion, eta zuzenean infernura joango zela esan zion. Hodak ez zuen ezer esan, eta bere lanarekin jarraitu zuen.

Sukaldeko lana bukatu zuenean, Hodak brodatze-lanari ekin zion. Egunero, tokiko merkataria batentzat bufandak, xalax eta txaketak brodatzen zituen, senarrak herriko te denda batean lan egiteagatik jasotzen zituen diru-sarrera txikiak osatzeko. Lana, ordea, gero eta zailagoa zen. Merkataria merkaturia geldo zegoela esan zion, eta Hodak, bere etxeke lanez gain, egunean askoz ordu gehiago lan egin behar zituen duela bost urte irabazten zuen kopuru bera lortzeko. Gauean, haurrak eskolatik etorri eta jateko zerbait eman ondoren, Hoda lanean jarri zen. Aurpegia eta gorputza belo batez estali zituen, bere komunitatean ohitura zen bezala.

Merkatariaren dendara iritsi zenean, ohiko isekekin aurkitu zen. “Hara, hemen dago, zaku beltzeko emakumea! Hitz egiten eta entzuten ez duen elbarri gor eta mutua. Hirugarren mailako brodatu alferrikakoak egiten ditu, eta ni horientzako bezerorik aurkitu ezinik! Erakutsi gaur egin duzun lan tamalgarria”. Hodak, isilik, azken egunetan brodatu zituen bufandak entregatu zizkion, egunero ia 10 orduz makurturik lan eginez, lepoa eta sorbaldak minduta eta hatzak gogortuak zituela.

Merkataria lanari begirada bat bota zion eta gogo txarrez ordaindu zion, aurreko astean lan berberagatik eman ziona baino gutxiago, gainera. “Baina, jauna...”, hasi zen Hoda. “Zer? Zer?”, oihi egin zuen merkataria. “Ez zaizu dirua gustatzen? Ba hartu zure lan ziztrin hori eta ospa hemendik”. Hodak bazekien kolpea eman ziotela. Behartsua, emakumea, analfabetoa, desgaitua eta komunitate gutxitu batekoa zen. Hura lurrean mantentzeko elkarrekin lan egiten zuten botere-egitura ezberdin askori egin behar zien aurre.



## BARNEKO BOTEREA

### Shamim-en historia

Shamim Akhtar-en historia sinestezinak gure barneko boterea erabiltzen dugunean lortu ahal dugunaz asko irakasten digu. Shamim Islamabadeko (Pakistan) familia txiro bateko emakume arrunta da. Shamim ez da aktibista soziala, eta ez zuen aktibista edo antolakunderen batek “ahaldundu”. Baina, aurreikuspen guztien kontra, kamioilari izatea lortu zuen, bere senarra zenak bezala.

Shamimek bere familia mantentzeko kamioilari izatea erabaki zuenean, ez zen estigma sozialaz, jendeak esango zuenaz, gizonen jazarpenez edo bere segurtasunerako arriskuaz kezkatu. Herriko autoeskolak ezetza ematera ukatu zen, eta, azkenean, onartu eta kamioi bat gidatzen irakatsi behar izan zioten.

Gaur egun kamioilaria da, gainerako gidariekin errespetu eta begirune handia diote, eta beste bat bezala edo ama bat edo ahizpa bat bezala tratatzen dute. Zer azalpen du Shamimen ausardiak eta bere buruarenganako konfiantzak, ez bada bere botereaz, bere barne boterearen sentrazioa duela? Jakina, denok ezin ditugu Shamimek bezain gauza ausartak egin, baina denok ikas dezakegu barnean dugun botere horretaz jabetzen.



Shamim-i bere historia kontatzen entzun diezaiokezu, hemen:


<https://youthkiwaaz.com/2016/10/pakistan-first-woman-truck-driver/>

# 3

## NONDIK DATOR BOTEREA?

Botere sozialera  
igo arazten duten  
baliabideak ez dira  
soilik baliabide  
ekonomikoak.

**Botere soziala, hasiera batean, baliabideak eskuratzetik eta kontrolatzetik sortzen da. Hainbat arrazoi tarteko, pertsona edo talde batzuek baliabideenganako kontrol handiagoa eskuratzen dute eta botereitsuagoak bilakatzen dira. Baina ez dira baliabide ekonomikoak bakarrik. Izan ere, egungo munduan badira, gutxienez, botere soziala eragiten duten lau baliabide mota. Baina nahiko okerra ere bada. Bai, baliabide ekonomikoak botere-iturri handiak dira. Baina badira, botere-iturri gero eta garrantzitsuagoak diren baliabide ez hain agerikoak.**



### BALIABIDE MATERIALAK EDO EKONOMIKOAK

Gutako gehienok badakigu zer diren baliabide materialak edo ekonomikoak: lurra edo etxea, bitxiak eta dirua bezalako aktibo finkoak. Baliabide ekonomikoak botere sozial osoaren oinarria direnaren ustea nahiko indartsua da. Baina nahiko okerra ere bada. Bai, baliabide ekonomikoak botere-iturri handia dira, baina badira horren begi-bistakoak ez diren baina geroz eta garrantzi handiagoa duten beste botere-iturri batzuk ere.

### GIZA-BALIABIDEAK

Pertsonen gorputzaren eta lanaren gainean gauzatzen den kontrola botere sozialaren iturri oso garrantzitsua da. Emakumeek erraz ulertzen dute hori; izan ere, gure gorputzaren gaineko kontrola beste pertsona batzuen esku egon ohi da, gure sexualitatea eta ugalketarako gaitasuna barne. Emakumeek ezin dute sexuari buruz erabaki (are gehiago, senarrei ezin diete ezetzik esan), ezta seme-alabarik izan nahi duten edo zenbat izan nahi dituzten ere. Gure gorputzak nora jo dezaketen, nola ikusten diren, non egon daitezkeen, beste batzuek kontrolatua dago. Ez dugu aske mugitzeko edo toki jakin batzuetan bakarrik egoteko eskubiderik, askotan ezin dugu nola jantziko garen erabaki eta, oro har, gizonak jaun diren tokietan ez egoteko esaten zaigu. Kalean edo garraio publikoetan egiten den jazarpena, iluntzen duenean ezin irten ahal izatea, arropa “probokatzailerik” ezin eraman ahal izatea edo gure aurpegiak edo gorputzak estali behar izatea emakumeentzat guztiz normaltzat jotzen diren mugak dira. Baina horiek guztiak gure gorputzak kontrolatzeko eta gorputz horiek izan beharko lituzketen askatasunak ukatzeko erak besterik ez dira.

Era berean, egiten dugun lana –gure lana– kontrolatzeko gaitasuna, giza-baliabideen kontrolaren beste adierazle bat da, botere-iturri bat, alegia. Botere gehien duten norbanakoek eta taldeek besteen lana kontrolatzen dute, eta botere hori generoan (gizonek dute emakumeen lanaren eta gorputzen gaineko boterea), klasean, kastan, arrazan, etnien, nazionalitatean, ... oinarritu daiteke. Indiako kasten sistema osoa, adibidez, nork zer lan mota egin zezakeenaren gaineko kontrol zorrotz batean oinarritzen zen, eta lan batzuk (lan intelektuala edo negozioak) gehiago baloratzen ziren, garbiketaz edo giza hondakinez arduratzen ziren lanak baino (bizarginak, ikuzleak, kale-garbitzaileak, larruaren langileak). Halako lanbide “baxuak” egiten zituztenak “ukiezintzat” hartzen zituzten, egiten zuten lana gizartearentzat funtsezkoa izan arren.

## Ezagutzaren boterea kontrolatu, botere soziala eraikitzeko

### Kasten sistema

Ezagutzaren boterea, botere soziala handitzeko erabili izan zela oso argi azaltzen du Indian sortu eta sendotu den kasten sistemak. Kasten sistema ez zen lanbidean bakarrik oinarritzen, hainbat ezagutza eta informazio mota noren eskura egon zitekeen zehaztean ere, bata eta bestea, ezagutza eta informazioa, oso lotuta baitaude. Azken talde horri ez zitzaion ikasgune batera (eskola edo monasterio bat) hurbiltzen uzten, ezta bere itzala liburu batean proiektatzen ere! Shudra eta Dalit kastek, biztanleriaren gehiengoa osatzen zuten arren, “goi-mailakoak” deituriko kastek menderatu zituzten, edozein ikasketa formalerako sarbidea ukatuz.

Emakumez ari garenean, kontua interesgarriagoa bilakatzen da. Brahman eta Kshatriya kastetako emakumeei nolabaiteko heziketa ematen zitzaion bitartean, alfabetatzeari eta idazketa erlijiosoen ikaskuntzari ematen zitzaion tartea zorrozki kontrolatuta eta mugatuta zegoen. Eta, are gehiago, hilekoa zutenean edo erditu ondoren ez zitzaion liburu sakraturik ukitzen uzten, ezta ikasteko edo gurtzeko tokietan sartzen uzten, “lizunak” zirelakoan. Eta, jakina, “behe-mailako” kastak deituriko kastetako emakumeei –batik bat, Shudra edo Dalit– ez zitzaion alfabetatzen edo nolabaiteko hezkuntza formala jasotzen uzten.



Indiako historiaren azken mila urteotan, kasten zapalkuntzaren aurka altxamendu asko eman ziren. Altxamendu horren ekintza sinboliko bat, zapaldutako kastetako jendea eskoletan eta tenpluetan sartzea eta testu erlijiosoak erabiltzea izan zen. Baina gaur arte, kastarengatik baztertzeari debekaturik eta unibertsitaterako hezkuntza bermaturik egon arren, “kasta baxuko” Dalit-en aurka ankerkeria kontaezinak burutzen jarraitzen dira, edo sistematikoa den diskriminazioak indarrean bizirauten du, hala nola Dalit haurrak eskola-orduetan ikasgelatik kanpo esertzera behartzen dituztenean.

## EZAGUTZA BALIABIDE GISA

Bada esaera zahar bat, “ezagutza boterea da”, esaten duena. Ezagutza eta informazioa botere-iturri are handiagoak bilakatu dira gaur egungo munduan, eta baliabide ekonomikoekin lotura estua dute. Heziketa jaso duten edo ezagutza profesionalak edo teknikoak dituzten pertsonak, baliabide ekonomiko asko dituen inguru batetik etorri ez arren, nahiko boteretsuak eta eragin handikoak izan daitezke. Herri mailan ere, irakurtzen eta idazten dakien pertsona txiro batek botere sozial handiagoa du, ez dakitenek baino: herrixkako kontseiluaren aurrekontuari, gobernuak abian jarritako plan berri bati edo bankuak mailegu-programa berri bati buruz eskainitako informazioa eskura dezakete, adibidez. Ezagutzarako sarbidea ondasun edo baliabide produktibo berrietarako sarbide bihur daiteke, eta komunitate-mailan ospe eta eragin handiagoren iturri ere. Eta, alderantziz, baliabide ekonomiko gehien dituztenek ezagutza eta informazioa eskuragarriago dituzte.

## BALIABIDE UKIEZINAK

Naila Kabeer Asia Hegoaldeko ekonomialari feministak kontzeptu zoragarri hori ekarri zigun, botere soziala maiz ikusezinak diren baliabideetatik ere badatorrela adieraziz, eta horiek ikusi edo ukitu behar izan gabe ere, oso errealak direla: nor ezagutzen den, gizarte-laguntzako sareak, gizarte-mugimenduetako edo sindikatuetaiko kide izatea, eta horrelako beste baliabide “erlazional” batzuk, oso errealak direnak baina ez dirua, lurra edo lana bezain agerikoak edo zehatzak. Sozialki boteretsuak diren pertsonak baliabide ukiezinak erabiltzen dituzte gainerakoak kanpoan mantentzeko baina, baztertutako pertsonak ere etengabe erabiltzen dituzte beste modu batetara ukatuko zaizkien espazio edo aukeretarako sarbidea lortzeko. Adibidez, baliabide ukiezinak une zailetan elkar laguntzeko erabiltzen dira, lan bat lortzeko, eskola edo unibertsitate batean onartua izateko, edo beste egoera batean bere bulegoan onartuko ez zintuzkeen funtzionario edo politikari garrantzitsu bat ezagutzeko.



## BARNE-BOTEREA

Hemen, aurreko atalean esandakoa errepikatzea funtsezkoa da, **ni-a ere botere-iturri dela**. Pertsoneri, sarritan, egitura jakin batean ezinduak edo gutxiago direla sinestarazten zaie, botere sozialaren egituran duten kokapenagatik: klaseagatik, kastagatik, arrazagatik, etniagatik, erlijioagatik, genero-identitateagatik, lanbideagatik, edo beste faktore batzuegatik. Barne-boterea ere baliabide ukiezin bat da, azaltzen zaila den zerbait, baina harrapatzeko edo kentzeko ezinezkoa ere. “Ahalduntzea”, pertsona guztiok barruan daramagun funtsezko botere horrekin harremanetan jartzen saiatzen garen prozesua da. Barne-botere hau besteengan dagoen boterearekin elkartzen dugunean, itxuraz aldaezinak diren botere-egiturak desegin eta eralda ditzaketan aldaketa-prozesuak eraiki ditzakegu.



## Sheela-ren historia

**Sheela neska goiztiarra zen, azkarra eta bihurri samarra. “Zergatik?” galdetzen zuen beti, neska izateagatik zerbait egin behar zuela edo egiterik ez zuela esaten ziotenean.**

Familian galdera hori entzuteaz kokoteraino zeuden, amona izan ezik. “Utz diezaiogun neskatoari galdetzen eta erantzun zentzudun bat entzuten. Ni bezalako emakumeak beste batzuegatik zapalduak izaten utzi garelako, onartu behar al du berak hau? Zergatik?”, zioen. “Galdetu”, esan zion Sheelari. “Segi galdetzen. Eta erantzunarekin pozik ez bazaude, ez entzun! Egin zure ustez zuzena dena”. Amonak, Sheelari ikasi egin behar zuela esan zion, abokatu edo mediku bihurtu, lan bat lortu eta bere dirua irabazi. “Izan ezazu zure kontu korrante pertsonala”, aholkatu zion Sheelari. “Ez eman zure dirua senarrari! Jainkoak ez dizu adimen guzti hori eman neska izate hutsagatik; etxean jatordua prestatzen eta asto lanak egiten geratzeko. Egin ezazu zerbait zure kabuz, ez izan ni bezalakoa”.

Amonari esker, Sheela barrutik oso boteretsu sentitzen hazi izan zen, baita autoritate formalik gabeko funtzioak betetzen zituen ere, edo inork boteretsutzat jotzen ez zuen egoeretan ere. Ikasgelako ordezkaria beste norbait zenean ere, gainerako ikasleek harengana jotzen zuten aholku eske. Lehengusu nagusiek ere, egin nahi zituzten gauzei buruzko iritzia hari eskatzen zioten. Horregatik, hazi zenean eta garapenerako hainbat erakundetan lanean hasi zenean beti entzuten zioten, askok eskatzen zuten haren iritzia; “nagusia” ez izan arren, barne-ahalmen sentipen bat nabari zitzaiolako.

# 4

## NOLA IKUSTEN DA BOTEREA?

Guztiok ikusi izan dugu boterea, eta badakigu guregan edo besteengan eragiten ari denean identifikatzen. Baina esperientzia horiek, boterea horren erraz ikusten denean, boterearen modu edo aurpegi bat baino ez dira. Izan ere, botereak hiru aurpegi ditu: agerikoa, ezkutukoa eta ikusezina. Justizia soziala eskuratzeko bidean aurrera egin nahi badugu, garrantzitsua da boterearen hiru aurpegiak identifikatzea.



## BOTEREAREN HIRU AURPEGIAK<sup>2</sup>

**Ageriko edo zuzeneko boterea da, gehien ezagutzen dugun eta denok esperimendatu dugun botere-modua, eta ia egunero ikusten dugu espazio publikoetan zein pribatuetan jarduten.**

### ESPazio PUBLIKOETAN

Ageriko boterea pertsonen aukerak, baliabideetarako sarbidea, erabakiguneetako ahotsa eta gizarteak arautzen dituzten eta herriak gobernatzen dituzten arauak kontrolatzeko gaitasuna da. Botere mota hori buruzagi politikoen, poliziaren, armadaren edo botere judizialaren eskuetan ikusten dugu. Baita, buruzagi erlijiosoen (apaizak, adibidez), enpresa multinazionalak buruen, klan eta tribuetako buruen, gizarte-mugimenduetako erakundeen (sindikatuak, esaterako), edo GKE-en eta emakumezkoen erakundeen zuzendaritzengan ere. Ageriko botereak, eremu publikoan erabakiak hartzerako garaian nork parte hartzen duen -eta kanpoan nor geratzen den- zehazten du. Hainbat erabaki, hala nola aurrekontu nazionalaren zer zati bideratuko den hezkuntzara, osasungintzara eta defentsara; edo herriko kontseiluaren aurrekontuaren zein ehuneko bideratuko den errepide bat eraikitzea, eskolaren konponketara beharrez. Horregatik, talde ekonomiko eta sozial boteretsuen interesak gai dira (beren ondasun, aberastasun, posizio, genero, arraza, etnia edo kastaren arabera, adibidez), sistema politikoak pertsona behartsuenen kontura menperatzeko, azken hauek ugariagoak izan arren.

### ESPazio PRIBATUETAN

Ageriko edo zuzeneko boterea, era berdintsuan aritzen da familian, etxean edo senar-emazteen artean ere. Baina, hau, nork noren gaineko kontrola duen zehazten duten arau eta ohitura sozialetatik sortzen da, gobernu, polizia, armada edo auzitegi batek izan dezakeen aginte formalek baino gehiago. Eremu pribatuan agerikoa den boterea generoarengatik sakonki markatua dago, eta adinean, egoera zibilean, ondasun pribatuen kontrolean eta abarretan oinarritutako hierarkiak sortzen ditu. Horren adibide argi bat da familia-buru diren gizonak edo adineko emakume ezkonduak (amaginarrebek) gauzatzen duten zuzeneko boterea, lana sexuaren arabera banatuta egotea –bai etxeko lanetan, bai eta seme-alaben zaintzan-, edo etxeko zein familiako botere ekonomikoa, lan produktiboa edo erabakitzeke boterea nola banatzen den. Agerikoa den botere horrek agintzen du, adibidez, emakumeek eguneroko biziraupenerako funtsezkoak diren etxeko eta ekoizpeneko zenbait lan egingo dituztela baina, ez dutela eskubiderik izango soldata-berdintasuna izateko, diru-sarrerak kontrolatzeko, herentzia-eskubideak izateko edo beren gorputzak kontrolatzeko, mugikortasunari, harremanei, sexu-adierazpenari edo ugalketari dagokienez. Ageriko edo zuzeneko botereak, semeak lehenestea bezalako fenomenoak ere azaltzen ditu.

<sup>2</sup>Lisa Veneklasen-i eta Valerie Miller-i esker onez, A New Weave of People, Power and Politics, Just Associates (JASS), 2002

## **Ezkutukoa edo zeharkakoa den botereak, batzuetan agenda ezartzeko boterea ere deiturikoak, erabakietan nork eragiten duen edo ezkutuan agenda nork ezartzen duen, zer ahots entzuten diren edo kontu jakin bati buruz nori galdetzen zaion adierazten du.**

Pertsonen aukeretan, baliabideetarako sarbidean eta eskubideetan zeharka eragiteko gaitasuna da, zuzeneko agindurik eman gabe edo hori egiteko inolako eskubide formalik izan gabe, eta agerikoa izan gabe. Kasu honetan ere, ezkutuko boterea edo agenda ezartzeko boterea arlo pribatuan zein publikoan aritzen da.

### **EREMU PUBLIKOAN**

Ezkutuko boterea, buruzagi politikoen eta buruzagi erlijiosoen arteko loturan jarduten dela ikusten dugu, korporazio pribatuetan, edo drogaren edo armen merkatarietan, horiekien ezkutukoak diren lotura estuak dituztelarik. Horrela, eragile horiek, erabakietan eta politiketan ageriko inolako botererik gabe eta hori egiteko eskubiderik gabe eragiteko gai dira. Bertha Caceresen heriotzaren kasua, Hondurasko milizia pribatuek, gobernuekin eta interes korporatibo pribatuekin batera azpilanean erail egin izana, horren adibide izan zen. Noski beraien borondatez dohaintzak egiten dituztenek eta fundazioek ere ezkutuko boterea erabiltzen dutela, aldaketa sozialerako bide-orri onenak zeintzuk diren edo zer nolako

aldaketa izan beharko litzatekeen erabakitzen dutenean; bai eta, zer lehenetsi eta jorratu behar duten, eta zer ez, zeharka kontrolatzen dutenean ere. Ezkutuko boterea, aurrekontu nazionaletan dirua esleitzen den moduan ere agerikoa da; ez finkatzen diren legeetan bakarrik, baita falta direnetan ere. Duela gutxi arte, etxeko indarkeria “gai pribatutzat” jotzen zen, eta ezin zen legez zigortua izan; ez zegoen lantokian sexu-jazarpenaren errudunak zigortzeko legerik. Sexu-indarkeriari buruzko legeek, bortxaketak adibidez, biktimak delitua frogatzea eskatzen zuten, eta ez salatua izandako pertsonak bere errugabetasuna frogatzea.

### **EREMU PRIBATUAN**

Ezkutuko boterea, genero-diskriminazioa eta beste baldintzatzaile batzuk familietan eta klanetan erreproduzitzeko eta ezartzeko duten moduan jarduten da, herrialde-mailako legeek horiek hainbat eratan debekatzen dituzten arren. Etxean, adibidez, emakumeek euren seme-alabei generoaren araberako arau sozialak irakasten dizkiete: alabei, “neska on” bat izateko nola jokatu behar duten azalduz, edo haien mugimenduak eta jantziak zorrozki kontrolatuz; semeei, mutil gogorrek eta ausartak izatera bultzatuz, nahi bezala ibiltzen uzten, eta janari hobeak eta osasun-arreta egokiagoa emanez, etab. Hori da gizarte-arauen ezkutuko boterea. Era berean, argi dago, etxeko gizonen boterea eta pribilegioak babestu dituzten emakumeek familiaren erabakietan eragin handiagoa eta botere handiagoa dutela, aginte formalaren beharrik gabe. Telebista bidez ematen den tokiko edozein telesail herrikoik familietan zeharkako botere mota horren eredu argiak eskaintzen dizkigu.

## Botere ikusezina, zentzu askotan, boterearen aurpegi guztien artean problematikoena da, hain zuzen ere ikusezina delako, nola bilatu eta non aurkitu jakin arte.

Eta, horregatik, aurre egiteko botere-modurik zailena izaten da. Botere ikusezina, pertsonak euren buruaz pentsatzen duten modua eta sentitzen duten modua eraldatzeko boterea da (pertsonek autoirudia eta autoestimua, esaterako). Jarrera eta aurreiritzi sozialak sortzen dituen indarra da, eta gure nahi eta beharretan eragiteko modua ere.

**Ideologia** da, ziurrenik, botere ikusezinaren modurik indartsuena eta unibertsalena, ideologia gure ustez ondo eta gaizki dagoela uste duguna, “normala” eta “anormala” edo “naturala” eta “naturaz kontrakoa” dela biltzen dituen sinesmen, ideia eta arauen multzoa baita. Ideologia da gizarte-sistema bidegabeak eta, are, gure ahalduntze eza onartzen, babesten, iraunarazten eta parte hartzen irakasten digun botere ikusezina. Gizonen nagusitasunaren ideologia (ideologia patriarkala) da horren adibide argi bat. Sistema horrek, eta euskarrizten den ideologiak irauten du, ez gizonak inposatzen dutelako, emakumeak gazte-gaztetatik hori onartzeko –aurre egin ordezhetzen dituztelako baizik; emakumeak izan arren sortzen dituen diskriminazioa eta desberdintasuna pairatzen dutenak. Izan ere, emakumeak bihurtzen dira patriarkatuaren soldadu leialak, horrenbesteko indarrez, non gizonak ez duten defendatu beharrik. Ideologiak, arrazarenak (larri zuriko pertsonak larri ilunekoak baino gehiago direla), heteronormatibitatearenak (beste sexuak erakartzea da “normala” edo “naturala” dela) eta kastarenak (kasta batzuk beste batzuen gainetik daudela dioenak) botere ikusezinaren beste adibide batzuk dira, pertsonen ni-aren esanahia, jarrerak eta aurreiritziak eraldatzeko duten moduagatik. Hala ere, gehienetan ez dugu ideologiak agerikoa den modu batean jokatzeko duenik ikusten, eta hori da haren botere ikusezina. Beste adibide batzuk, pertsonen ni-aren esanahia, jarrerak eta aurreiritziak eraldatzeko duten moduagatik. **Hala ere, gehienetan, ez dugu ideologiak agerikoa den modu batean jokatzeko duenik ikusten eta, hori da haren botere ikusezina.**

**Komunikabideak**, marketina eta publizitatea ere botere ikusezinaren adibide onak dira. Komunikabideek botere ikusezin bat zabaltzen dute etengabe, zer gai azpimarratu eta zer gai baztertu erabakitzen dutenean, eguneko gai garrantzitsuenak zeintzuk diren esanez. Baztertzen eta azaltzen ez dutena ere garrantzitsua da. Baina gai batzuei ikusgarritasun handiagoa eta beste batzuei txikiagoa ematerakoan, lehentasun sozial, ekonomiko eta politikoen gainean ditugun usteak moldatzen ari dira, eta etengabe guretzat garrantzitsua zer den eta zer ez den erabakitzeko zentzuan eragiten dute, gu horretaz konturatu gabe. Publizitatearen industriak ere antzera funtzionatzen du. Iragarki koloretsuek, melodia itsaskorrek eta hainbat produkturen iragarkiek era oharkabean moldatzen dituzte gure nahiak, eta ona, glamourosoa, txarra edo ezkorra denaz arau berriak sortzen dituzte. Egunerok manipulatu gaituzte gu horretaz konturatu gabe ere; argalagoak izatea nahi izan dezagun, larru argiagoa izan, halako modeloaren antzekoa izan, era bateko jantzia edo bestelako zapatak eraman nahi izateko, krema, telefonoa edo aparatua erostera bultzatuta. Telesailek ere modu berean funtzionatzen dute: normala denari buruz dugun sena eraldatzen digute, gure balioak, gure hizkuntza, janzteko dugun era, gure jokabidea, gu konturatu gabe. Botere ikusezina da hori.

**Zergatik da garrantzitsua boterearen aurpegi ezberdinak ulertzea?** Gizartea eraldatzeko edo emakumeen eskubideen alde lan egiterakoan agerikoa den boterera sarritan zuzentzen garelako: lege bat aldatzea, emakumeek kargu politiko bat betetzea, indarkeria erabili duenari auzipetzea, ... Baina gutxiago erreparatzen diegu ekintza horretan aritzen diren ezkutuko botereei, botere ikusezinei, hauek askotan inpaktu handiagoa izan arren. Botere-egituretan aldaketa iraunkor bat sortzea edo horiek osorik desegitea nahi badugu, horiek euskarriz dituzten ezkutuko indarrak eta indar ikusezinak azalaraziz eta eraitsiz bakarrik lortu ahal izango dugu.

# 5

## NOLA ADIERAZTEN DA BOTEREA?

Boterea kanpoan,  
gizartean edo  
komunitatean oro har,  
aldatu beharreko zerbait  
dela -ez gure baitan-  
uste dugu.

## 5 Botere-adierazpen



GAINEKO BOTEREA  
ZERBAITETARAKO BOTEREA  
BARNEKO BOTEREA  
NORBAITEKIN  
PARTEKATUTAKO BOTEREA  
AZPIKO BOTEREA

**GAINEKO BOTEREA** da ohituen gauden eta errazten hautematen dugun botere praxia. Ageriko boterea duten pertsonak eta erakundeak erabiltzen dute: amek, aitek, buruzagi erlijiosoak eta politikoeak. Nork erabakitzen duen zer, eta zeinek adierazten duen beste pertsonenganako zuzeneko edo zeharkako kontrolean gauzatzen da, haien aukerak, hautapenak eta ekintzak erabakitzen dituztelarik. Gaineko boterea menderatzearekin lotuta egon ohi da. Hona hemen adibide batzuk. Mbutok erabaki zuen bere semea, eta ez alaba, bigarren hezkuntzara bidaliko zuela, bere bi semeetako bat bakarrik bidal zezakeelako. Apaizak uztaren jaia ospatu ez zezatela agindu zien jarraitzaileei, bere liburu sakratuan ez zelako halakorik aipatzen. Janak arropa garbitzeko agindu zion alabari, lagunekin jolastera joan beharrean. Estatu Batuetako presidentek Irak inbaditzea erabaki zuen. Beste presidente batek, herrialde batzuetako herritarrei Estatu Batuetara sartzea galaraztea erabaki zuen.



Erregistratu hemen zure esperientzia **Gaineko Boterearekin**

---

---

---



**ZERBAITETARAKO BOTEREA** edozein helburu pertsonal, kolektibo edo politiko lortzeko gure kabuz edo besteengatik jarduteko dugun gaitasuna da. Beste norbaiten baimenik edo onespenerik bilatu gabe, gauzak egiteko boterea da –agentzia ere deitzen zaio–. Hona hemen adibide batzuk. Nagammak, lurrik gabeko Dalit langile batek, lurjabearen aurrean makurtzeko ohitura gehiago jarraituko ez zuela erabaki zuen, beste Dalit emakume batzuek laster gauza bera egingo zutelakoan. Nsiphok institutuko atarian postu bat jartzea erabaki zuen, izozkiak eta bitxikeriak salduz dirua irabazi eta unibertsitatera joan ahal izateko.



Erregistratu hemen zure esperientzia **Zerbeitetarako Boterearekin**

---



---



---



---



---



---

**BARNEKO BOTEREA** aurreko kapitulu batean azaldu izan da. Dena dela, aipatzekoa da barneko boterea ere lotuta egon daitekeela baliabide ukiezinaren kontzeptuarekin. Ezagutzek, informaziorako sarbideak, kontaktuek eta sare sozialek gure barneko botere hori handitzen lagundu dezakete.



Erregistratu hemen zure esperientzia **Barneko Boterearekin**

---



---



---



---



---



---

**NORBAITEKIN PARTEKATUTAKO BOTEREA**, botere kolektiboaz ari da. Bidegabeba denari aurre eta aurka egiten dion boterea da, bidegabekeria berari aurre egiten dioten edo kausa berberagatik kezkatuak dauden gainerakoekin mobilizatuz eta elkartzuz. “Norbaitekin partekatutako boterea” boterearen adierazpen indartsuena da, eta munduko bidegabekeria handienetako batzuekin amaitzea lortu du -esklabotzarekin, adibidez-, baita diktadura eta erregimen boteretsuekin ere. Hona hemen adibide batzuk. Kaleko ehunka mila herritarren altxamenduek Egipto, Nepal, Brasil eta beste herrialde askotan jendeak nahi ez zuen lider eta gobernu askoren eraistea ekarri zuten. Manipur-eko adineko emakume batzuek biluztea erabaki, eta protesta isil bat egin zuten beraien komunitateko emakume bat bortxatu eta mutilatu zuten segurtasun-indarren aurrean. Bertha Caceres, Hondurasko ingurumenaren aldeko aktibista, meatzaritzako operazioen kontra protesta egiteagatik erail zutenean, emakume-taldeek herrixkatik hasi eta NBEra arte iritsi ziren protestak antolatu zituzten, meatze-enpresa komunitatearen lurretatik alde egitera behartuz. Otsailero milioika emakumek *One Billion Rising* kanpainaren harira martxa eta dantza egiten dute, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko kontzientziazioa areagotzeko.

**Hala ere, “norbaitekin partekatutako boterea” jendea zapalduta mantentzeko ere erabili izan dela gogoratzea garrantzitsua da. Botere hori korporazio pribatuek eta politikariek gobernu-politikak aldatzeko, onura pribatuak handitzeko eta politikarien poltsikoak betetzeko elkarrekin lan egiten dutenean ikusten dugu martxan. Beste mota bateko botere kolektiboa da hori, eta ez du justizia edo berdintasun gehiago lortzeko inolako interesik.**



Erregistratu hemen zure esperientzia **Norbaitekin Partekatutako Boterearekin**

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

~~~~~

**AZPIKO BOTEREA**, boterearen adierazpen oso konplexua da, baina oso hedatua dago, batez ere emakumeen artean eta emakumeen erakunde eta mugimenduetan. Boterepean egoteak, diskriminazioa, abusua, zapalkuntza eta trauma jasan duten pertsonen boterea lortzen dutenean abusuzkoak, autoritarioak eta zapaltzaileak zergatik bihurtzen diren azaltzen du, (batez ere, gainera boterea lortzen dutenean).




## Zer da azpiko boterea?

Steven Wineman psikoanalistak kontzeptu hori gudek, joan-etorriek, gehiegikeriek eta indarkeriek traumatizatutako pertsonekin egindako lanaren ondoren garatu zuen. Azpiko boterea amorrutik eta ezintasunetik sortzen dela dio, hauek eragin zituen egoeratik ihes egin ondoren ere, amorruek eta ezintasunak sendatu gabe jarraitzen dutelako. Bestalde, traumatik eta indarkeriatik bizirik atera diren pertsonen zaila egiten zaie biktima sentitzeko ohitura alde batera uztea. Horrek bere horretan jarraitzen du zapalkuntza-egoera batetik ateratzen direnean ere, baita boterea beren kabuz eskuratzen dutenean ere (adibidez, erakundeetako lider edo familia-buru bihurtzen direnean). Etengabe, berriro biktima izango ote diren beldur dira, eta hori saihesteko modu bakarra, nagusitzea eta gainerakoak zapaltzea dela uste dute. Bizirik irauten lagundu zieten jokabide-ereduak ere erabiltzen jarraitzen dituzte: sabotaiak, matxinada, laudorio faltsuak, esamesak, etab. Beren traumak edo biktima-sentimendua ezagutu eta sendatu ez dituzten pertsonak ez dira boterea beste pertsona batzuk gutxiesten edo manipulatzeko ez dituzten modu osasuntsuetan mantentzeko eta gauzatzeko gai.

**Boterea gauzatzeko bi era baino ez dituzte ezagutzen: gainera boterea edo azpiko boterea.**

Aldaketa sozialaren testuinguruan, botereak praxian duen inpaktua askoz larriagoa da oraindik. Azpiko boterearen mende dauden pertsona asko erakundeak eta mugimenduak eraikitzen saiatzen diren euren jasan izan zuten bidegabekeriari aurre egin eta gaitortu nahian. Baina, euren amorruek eta ezintasuna aitortu eta lantzeko benetako prozesu bat egin ezean, azpiko boterea gauzatzeko jarraitzen dute oharkabea. Emakume gehienek euren bizitzan diskriminazio handi bati aurre egin behar izan diotenez, eta horietako askok abusu eta indarkeriako egoera larriak bizi izan dituztenez, emakumeek euren boterea adierazteko garaian, ez gaitu harritu behar azpiko boterea erabiltzeko joera nahiko ohikoa izateak. Horregatik, emakumeek genero-zapalkuntzari aurre egiteko erakundeak eta mugimenduak sortzen dituztenean, “azpiko boterearen” praktika ugari gauzatzeko dituzte azkenean, beraien boterea erabili eta botereaz bortxatzen dutenek bezainbatean, eta beraien misioaren helburuak urratuz.



## Zanzibarreko esperientzia Sendatu gabeko amorru eta ezintasunaren historia

Azpiko boterearen suntsigarritasunaren adibide bikaina da afrikar feminista zaharrenetako askok “Zanzibarreko Esperientzia” izenez ezagutzen dutena: itxaropeneko bilera bat zen hori, min, haserre, jeloskortasun eta gaitzespen bihurtu ziren. 2003an, Zanzibarren talde feminista bat Afrikako Biltzar Feminista antolatzen bildu zen. Horietako 35 emakume astelehen batean bildu ziren, eta laster konturatu ziren emakume bakoitzak bakarkako eta taldekako politika ez antolatuari buruz zituen usteak ez zetozeela bat besteekin. Beste hitz batzuetan, amorru eta ezintasun handia zegoen prozesuan. Ostegunean, hozkadak, arerioak, malkoak, samina eta anabasa ziren nagusi. Biltzarra ez zen egin, eta parte-hartzaileek ikasgai zail bat ikasi behar izan zuten: teoria eta praktika ez doazela beti eskutik.

Alde onari begiratuz, Zanzibarreko esperientziak afrikar lider feministei lidergo feminista eraginkor bat lortzeko lehen urratsetako bat zein izan behar zen identifikatzeko balio izan zien: mugimendu feministara askotariko historia eta bizipenekin heltzen gabela aitortzea. Ondorioz, gure arteko tratua arautuko duten eta gure joera suntsitzaileak kudeatzeko aukera emango diguten oinarritzko konpromiso-arau batzuk eraiki beharrean gara. Afrikako Gutun Feminista, feminismoaren munduan mota horretako lehen jokabide-kodea dena, Zanzibarreko hondamendiak egindako “oparia” izan zen.

Justizia sozialaren edo genero-berdintasunaren aldeko aktibista eta defendatzaile bezala gainditu behar dugun arazoetako bat, boterea, kanpoan, gizartean edo komunitatean aldatu behar den zerbait balitz bezala ulertzearen pentsamendua da, gure barruan aldatu behar dugun zerbait izanik. Oso gutxitan hausnartzen dugu gure boterearen erabileraz edo gehiegikeriaz. Edo boterearen erabilera okerraren gaineratik gauden santu eta salbatzaile batzuk gabela uste dugu. Baina munduaren aldaketaren benetako eragile izan nahi badugu, gugandik hasi behar gara. Mahatma Gandhiren aholkua gogoan izan behar dugu: “Munduan bilatzen duzun aldaketa izan zaitez”. Ezin diegu gainerakoei beste modu batean pentsatzeko eta jokatzeko eskatu, guk geuk egiteko prest ez bagaude. Ezin diegu gainerakoei beraien jarrerak, sinesmenak eta jokaerak aldatzeko eskatu, gu geu aldatzeko prest ez bagaude. Boterearekin dugun harremana aztertzen badugu bakarrik askatu ahal izango dugu“... oraindik izan ez garen [pertsona] bihurtzeko ahalmena”.<sup>3</sup> Hau da, justiziaz bizitzeko gai garen pertsonak.

<sup>3</sup>William J. Barber II reverendoaren artikulua lerro bat parafraseatuz eta Jonathan Wilson-Hartgrove-ren “Subverting Democracy is not Partisan. It is Immoral”, Sojourners-en <https://sojo.net/articles/subverting-democracy-not-partisan-it-immoral>



**Beraz, boterearekin duzun harremanaren eta hura erabiltzeko moduen inguruan hausnartzen hasteko aprobetxatu. Hurrengo ariketek lagunduko dizute, honetan:**

- Zure lehen botere-esperientziekin kontaktuan jartzen, baita esperientzia horiek gaur egun boterearekin duzun harremanean nola eragin dezaketen konturatzen ere.

- Zure boterearen praxia bera, eta praktika horretan aldatu beharra dagoena aztertzen.

Gogoeta horien emaitzak ez dituzu zertan inorekin partekatu behar. Baina zure barruan zer gauza aldatu beharrean zaren aztertzen hasteko lagundu beharko lizukete.

## Boterearekiko nire historia pertsonala aztertzen Nola harremantzen naiz boterearekin?

### 1. URRATSA EGIZU MEMORIA!

- Saia zaitez pertsonen arteko botereaz jabetu zinen lehen aldia gogoratzen, pertsona batzuek besteek baino botere handiagoa dutela. Gertaera edo bizipena etxean, eskolan, jolastokian edo beste edozein tokitan gerta izan zitekeen. Gainera boterearen (botere zuzena), zeharkako edo isileko boterearen, edo botere ikusezinaren (agenda ezartzeko boterea) esperientzia bat izan daiteke. Saia zaitez interakzio horretan boterea jokoan zela zerk konturarazi zintuen gogoratzen.

- Orain, saia zaitez zure botereaz jabetu zinen lehen aldia gogoratzen. Gainera boterea, ezkutuko boterea, edo azpiko boterea izan zen? Saiatu gogoratzen zerk egin zintuen kontziente interakzio horretan zenuen botereaz.

## 2. URRATSA

- Atzera begira, botere sozialaren ekuazioetan posizio hauetako zein bete izan duzu? (hautatu dagozkion guztiak). Zein posizioetan aurkitu izan zara **maizago?**
- **Menderatua** edo kontrolatuta (zure gain boterea edo autoritatea gauzatzen duen norbait). Nola SENTITU izan zara?
- **Baliokidetasuna.** Beste batzuekin batera autoritate edo kontrol bateratua erabiliz lan egiten duzunean. Nola SENTITU izan zara?
- **Kontrola.** Zu (banaka edo beste pertsona batzuekin) beste batzuen gaineko boterea gauzatzen ari zarenean. Nola SENTITU izan zara?
- **Beste bat.** Aurrekoetako bat ez den botere-ekuazio bat. Mesedez, azaldu zehazki gainerako pertsonetik zein posiziotan zauden ekuazioan, eta deskribatu nola SENTITU izan zaren.

- 
- Botere-posizio ezberdin horien artean, **zeinetan sentitzen zara erosoan?** Zeinetan uste duzu hobekien dakizula, zer egin behar den, zutaz zer espero den, eta egoera modu egokian nola kudeatu behar den?

## 3. URRATSA

- Nola uste duzu esperientzia horiek eragin dizutela **besteek duten boterearen**, zure erakundearen edo zure bizitza pertsonalean autoritate-posizioak betetzen dituzten pertsonen aurrean erreakzionatzeko moduan?
- Nola uste duzu esperientzia horiek, zure bizitza pribatuan edo zure bizitzaren antolakuntzan **boterea erabiltzeko duzun moduan** eragin dizutela?
- Egizu galdera hau: **amorruta eta ezintasuna al dut?** “Azpiko boterea” praktikatzeko al dut (gainerakoak azpiratuz, ez baditut menderatzen menderatua izango naizenaren beldur izanez beti, amorruta eta kontrolatua izateko beldurra sentituz beti)?
- Zure boterea gauzatzeko era aldatu beharra duzula sentitzen baduzu, laguntzeko zer motatako babes, orientazio edo prozesu beharko duzu?



# 6

## **NOLA FUNTZIONATZEN DU BOTEREA?**

Azken atal honetan, orain arte ikasi izan ditugun kontzeptuetako asko esparru bateratu batean bilduko ditugu, botere-egiturak nola eraikitzen diren, nola aritzen diren eta nola bizirauten duten ulertzen lagundu gaitzaten.

# Nola sortzen dira botere-egiturak?

Pertsona/talde batzuk kontrol handiagoa lortzen dute:

Pertsona/talde batzuk gaineko kontrol handiagoa irabazten dute:




Hasi gaitzen botere-egiturak nola eraikitzen diren ulertzetik. Lehen ikusi izan dugunez, botere-egiturak pertsona edo talde batzuk hainbat eratako baliabideen gainean, bereziki, baliabide materialekiko (lurra, dirua) eta ezagutzaren baliabideekiko aukera gehiago eta kontrol handiagoa dutenean sortzen dira. Botere hori, orduan, giza-baliabideak kontrolatzeko erabiltzen da, esate baterako, lurren jabetzarik edo baliabide finantzario propiorik ez duten pertsonen, bizi ahal izateko boterean daudenentzat lan egin beharra dutenean. Generoan oinarritutako botere-egituretan (edo patriarkatua deitzen zaiona), botere-egituraren oinarrian dauden gizon behartsuak ere emakume behartsuak baino boteretsuagoak dira, horien gorputzen, sexualitatearen, ugalketa-gaitasunaren eta lanaren gainean kontrola dutelako. Horrenbestez, ez lurrik eta dirua dituzten gizonak bakarrik, gizon behartsuak eta lurrik gabekoak ere giza-baliabide bat kontrolatzeko gauza dira: emakumeen gorputza eta lana.

**Denborarekin, baliabide materialen, ezagutzaren eta giza-baliabideen gaineko kontrola dutenek beraien eragin-sareak eraikitzen dituzte eta baliabide ukiezinaren gaineko kontrola irabazten dute. Baliabide ukiezinak, ordea, botere-egituraren posizio baxuenetan direnek ere sortzen dituzte, garai zailtan bizirauteko edo euren erresilientzia garatzeko, horretarako baliabide gutxi baitituzte.**



# Nola sortzen dira botere-egiturak?



## BOTERE-EGITURA BIDEGABE BAT MANTENTZEA

**Gailurrean elite pribilegiatu gutxi batzuk dituen botere-egitura batek ezin du bizirautea espero, baztertutako pertsona-masa handi bat altxatzen bada eta botere-egitura eraisten badu.**

Nola bermatu horrelakorik ez gertatzea? Nola bermatu beheko jendeak ere botere-egitura babestuko duela, edo, gutxienez, onartuko duela? Botere-egitura hori, hau da, pertsonen, ezagutzaren eta baliabide materialen gaineko berdintasunik gabeko kontrol hori mantentzea lehentasun bat bilakatzen da. Horrela, bereziki, pribilegio gutxien dituzten pertsonak beren lekuetan mantentzea, eta egiturari desafiatzea eta eraistea saihestea bilatzen da. Oro har, hori babesteko eta mantentzeko mekanismo multzo oso adimentsuak garatuz lortu izan da. Ikus dezagun zeintzuk diren.

## IDEOLOGIA

Lehen mekanismoa, eta garrantzitsuena, ideologia da. Ideologia, botere-egitura justifikatuko duen teoria bat edo ideia multzo bat eraikitzean datza, zeharo bidegabea edo berdintasunik gabekoa izan arren. Mendeetan zehar, berdintasunik gabeko botere-egiturak eta botere-egitura bidegabeak justifikatzeko sortutako ideologia asko ikusi ditugu:

- **Patriarkatu**aren ideologia, gizonak emakumeak baino gehiago direla dioena, Jainkoak hala erabaki duela dioena (lehenik Adan etorri zen, gero Eva), edo naturak (gizonak handiagoak eta indartsuagoak dira), rol biologikoak (emakumeek erditzen dute eta haiek zaindu behar dituzte haurrak), edo eboluzioak hala erabakita. Botere-egitura patriarkal batean, zure lana dagokizun genero-eginbeharra betetzea, eta egitura orokorra edo horren barruan sortzen diren bidegabekeriak zalantzan ez jartzea da.
- **Arraza**ren ideologia, pertsona zuriek adimen eta gaitasun handiago zutela, eta beraz, azal ilunekoak menperatzeko eskubidea zutela aldarrikatzen zuena zen; ideologia horren arabera, azal iluneko arrazei mesede egingo zien *gizon zurien* menpean jartzeak.
- **Kasta**ren ideologiak, zure bizitza honetako kasta iraganeko bizitzan egindako bekatuen emaitza dela dio, eta zure egungo kastak finkatzen dituen eginbehar eta arau guztiak lasai-lasai betetzen dituenak bakarrik ahalko duela hurrengo bizitzan kasta handiago batekoa izan.

Ideologia horietako batzuk idatzita daude. Manu brahman jakintsuak, K.a. II. Mendeen, bere *Manu Smriti* edo *Manava Dharmasastra* obretan, kasta eta genero arauak idatzi zituen (beste gauza batzuen artean). Adolf Hitlerrek *Mein Kampf*en arraza-nagusitasunari buruzko bere teoriak jaso zituen, eta Bigarren Mundu Gerran (1939-1945), Alemanian, arrazagatik “gutxiago” ziren juduak, ijitoak eta beste hainbat pertsona masiboki hiltzera eraman zituen. Gutako gehienok, ideologia ez dugu liburu batean edo irakaskuntza formalean ikasten, gure familian, etxean eta komunitatean entzun eta praktikatzan ikusten ditugun arau eta ideietatik baizik. Gure adinekoengandik, irakasleengandik eta beste pertsona batzuegandik, gure organo sexuarekin, klasean, kastan, etnien edo arrazan oinarritutako genero-identitate bat hartzen ikasten dugu. Gazte-gaztetatik ideologikoki hazten gaituzte, ideia horiek zalantzan jarri edo desafiatzeko gauza izan baino lehenagotik, eta, horrela, oharkabean gureganatzen ditugu.

Ideologia, botere-egitura bat babesteko sortu izan den tresna indartsuena da, mekanismo horren bidez mundu guztiari sistema zapaltzaile horretan parte hartzen, eta ez eraisten erakusten baitzaio: jendeari gizartean duen lekua onartzen erakusten zaio. Eta, oraindik garrantzitsuagoa dena, botere-egitura horretan gehien zapalduz direnak –emakumeak, Dalit populazioa, arrazializatutako pertsonak edo behartsuak– sistema horren babesle bihurtzen ditu. Emakumeek euren seme-alabei genero-arauak irakasteaz gain, arau horiek desafiatzen dituzten beste emakume batzuk zelatatzen eta behartzen dituzte. Eta hori egiteagatik saria jasotzen dute: euren familietan ahots eta eragin apur bat irabazten dute, pribilegio maskulinoa babesteagatik eta beste emakumeak bere tokian egotera behartzeagatik emakume “onak” izan direlako. Ideologia arma indartsua da, batez ere, botere ikusezina gauzatzeko era bat delako –gehienetan, ez gara konturatzen sustrai hilkor horrengatik bidegabekeria onartzera ohitzen garela: gure baldintzapen ideologikoa.

## ARAU ETA ERREGELA SOZIALEN SORRERA

Botere-egitura baten bigarren ardatza, hura justifikatzen duen ideologia, **sortuak izan diren arau eta erregela sozialen bitartez eguneroko praktikara** eramaten denean eraikitzen da. Generoari buruzko arau sozialen kasuan, ehunka daude: nola jantzi behar diren, nola hitz egin behar duten, nola ibili behar diren, non egon behar diren eta non ez, norekin harremandu daitezkeen eta norekin ez, nola jokatu behar duten, zer lan egin behar duten, etab. Arau horiek, ideologia patriarkalak emakumeek gizartean izan behar duten tokiari, eginkizunei eta betebeharrei buruz duen ustea, jokabiderako, lan-banaketarako, mugikortasunerako, itxurarako eta abarrerako erregela bilakatzen ditu. Har dezagun emakumeen “apaltasunari” buruzko arau sozialen adibidea. Kultura askotan, “emakume on” bat era jakin batetara jantzita ikustea, gizonetikoa kontaktua saihestea (batez ere bere ahaideak ez direnekin), senarrari edo adineko pertsoneri ez erantzutea, eta esleitzen zaizkion zereginak txintik esan gabe egitea espero da.

Arau horiek, ideologia patriarkalaren adierazpen bat baino ez dira, emakumeak zerbitzari izan behar direla eta beste sexuaren arreta erakarri behar ez dutela agintzen dutenak. Baina arau sozialak ez dira berdinak kultura guztietan eta emakume guztientzat, botere-egitura patriarkalaren eta beste botere-egitura sozial batzuen jatorri intersektionalak direla eta.

Horrela, langile-klaseko emakumeak ez daude klase ertaineko edo aberatseko emakumeen arau berberei lotuta. Familiaren biziraupenerako lan egin behar duten eta euren lana beste klase batzuen esku izan behar duten emakume behartsuek (uztak erein edo biltzeko, jende dirudunaren etxeko-lanak egiteko, arropa fabriketan lan egiteko) ezin dituzte, adibidez, mugikortasunari eta mugimendu mugatuari buruz klase ertaineko emakumeek dituzten gizarte-arau berberak bete.

Emakumeen mugikortasunaren inguruko gizarte-arauak oso testuinguru ona dira botere-egituren, ideologiaren eta arauen arteko loturak ulertzeko. Botere-egitura patriarkalek emakumeen gorputza kontrolatzen dute, hein batean, haien mugimenduak eta jantziak kontrolatuz. Ziurtzat jotzen da emakumeak ez direla bakarrik ibiltzen eta ez dutela arropa probokatzailerik eramaten, batez ere gaez, eta ez direla leku publikoetara bakarrik joaten. Hala egiten badute, sexu-jazarpenerako edo bortxaketarako “harrapakin erraz” modura dituzte. Horren biktima badira, berriz, jendearen erreakzioak honako hauei botatzen die errua: (1) emakumeari berari, ez zuelako bertara joan behar, ordu horretan, bakarrik, horrela jantzirik; (2) bere familiako gizonetzoei, emakumea ez zutelako “kontrolatu”; eta, (3), emakumearen amari eta familiako beste emakume batzuei, arauak eta “behar bezala” nola jokatu behar duten “irakatsi” ez izanagatik.



**Zure egunerokoan aritzen den arau sozial batean pentsatu (arauak honela adierazi ohi dira: “emakumeek ez dute...” edo “mutikoak izan behar dira...”). Saia zaitetz arau horren atzean dagoen ideologia, eta hori babesteko zer botere-egitura eratuta dagoen identifikatzen.**

Nire bizitzan aritzen den gizarte-arau bat honako hau da:

~~~~~  
~~~~~

Gizarte-arau horren atzean dagoen ideologia honako hau da:

~~~~~  
~~~~~

Arau horrek babesten laguntzen dituen botere-egiturak honako hauek dira:

~~~~~  
~~~~~

India bezalako herrialdeetan, kasta batzuetako

emakumezko zein gizonezkoentzat mugikortasunerako

gizarte-arau gogorrak daude. Horien arabera, ezin

dira tenpluan sartu, ezin dituzte ur-putzu edo ur iturri

batzuk erabili, “goi-mailako” kastentzat “erreserbatuta”

baitaude. Aurretik aipatu bezala, Dalit kastako haurrak

ikasgelan ezin ziren beste kastetako hurrekin batera

eseri. Arau guzti horiek, kasta-ideologiaren adierazpenak

dira, eta kastaren botere-egitura babesteko sortzen dira.

## INSTITUZIO MULTZOA

Generoaren botere-egiturak eta beste egitura sozial eta ekonomiko batzuk eusten dituen hirugarren ardatza instituzio multzo bat da, eta horiei eusten dieten arau eta erregelak sozialak, zein ideologiak irakasten eta bultzatzen ditu.

Pentsatzen baduzu, konturatuko zara lehen arau sozialak zure familian ikasi zenituela, ziurrenik amarengandik. Beraz, familia erakunde indartsua da, eta funtsezko zeregina betetzen du nagusi diren ideologia eta arau sozialak indartzeko, haurrei era ireki eta sotilean irakatsiz. Familian ikasten ditugu genero, kasta, klase, arraza, komunitate eta abarren gaineko arauak. Erljioa botere-egitura asko indartzen dituen beste erakundeetako bat da, eta bere sinesmenaren bidez horiek justifikatzen dituzten ideologietako asko adierazten ditu. Ia erlijio guztiek, adibidez, gizonen nagusitasunari eta emakumeen menpekotasunari buruzko ideiak sustatzen dituzte: Jainkoak, gizona mundua gobernatu zezan eta haren kontuak zuzendu zitzaiz sortu zuen; eta emakumea gizonari zerbitzatzeko eta gizonaren “kide” izateko sortu zuen.

Merkatuak ere ideologia patriarkala indartzen du. Merkatutzat hartzen dugu herrialde bateko bizitza ekonomikoa zuzentzen duten erakunde ekonomiko guztiak, bankuak, enpresa publiko eta pribatuak, merkataritza eta finantza-erakundeak, eta baita produktuak erosi eta saltzen diren nekazarien tokiko merkatua ere! Merkatuak modu ireki eta sotilean indartzen ditu arau ideologikoak, bereziki ideologia patriarkala. Esate baterako,

orain dela ia 20 urtera arte Asiako, Afrikako eta Ekialde Hurbileko toki askotako emakumeek ezin zuten banku bateko mailegurik lortu senarraren, aitaren edo anaiaren onespenez gabe. Nepalen emakumeek ezin zuten negozio bat beren izenean jarri; senarraren, aitaren edo anaiaren izenean erregistratuta egon behar zuten. Emakumeek ezin zituzte lan mota jakin batzuk egin –taxilaria, iturgina, edo mekanikoa, kasu– “gizonen” lanak direlako. Gaitasun handiak izanik ere, emakumeek ez dute lidergo garrantzitsurako prestakuntzarik jasotzen enpresa pribatuetan edo finantza-erakunde publikoetan.

Hezkuntzako erakundeak arau ideologikoak txertatzeko beste toki garrantzitsua dira, eta dauden botere-egiturei eusten ikasten da horietan. Gaur egun arte, herrialde askotan neskei ez zaie “gizonezkoen” kirol mota jakin batzuk praktikatzeko uzten. Duela gutxira arte, neskek zailtasunak zituzten ikastaro profesionaletan edo ikaskuntza tekniko eta zientifikoko erakundeetan (medikuntza, ingeniarietza, informatika, ikerketa zientifikoa) sartzeko. Mundu osoan ikerketa askok erakusten dute, matematika eta zientzia fisikoak bezalako ikasgaietan ere, errendimendu txikiagoa izaten hasten direla adin jakin batetik aurrera (normalean 12 edo 13 urte bete ondoren), inkontzienteki “gizonezkoen irakasgaiak” direla edo mutilak ahul sentiarazi behar ez dituztela uste dutelako. Joera horiek orain dela oso gutxi hasi dira aldatzen, ustekabeko erresistentzia ideologiko bati esker.

## Neska “kalifikatu” gehiegi medikuntzako unibertsitatean onartzeko: Zer egingo dugu?

Indiako medikuntza pribatuko fakultate ospetsu batek emakumeak onarpena eskatzera animatu ditu beti. Oso sarbide-azterketa gogorra zuten, erronka itzela. Sartzeko eskaera egiten zuten mila ikasletik, 300 inguruk bakarrik gainditzen zuten azterketa, eta unibertsitateak horien artetik 100 baino ez zituen aukeratzten. 2000. urtearen inguruan, azterketa egin eta onarpenerako sailkatzen ziren nesken ehunekoa %40 ingurukoa zen. Baina, handik gutxira, medikuntza zientzietako ezagutzak zituzten nesken zatia oso aukera profesional ezaguna bihurtu zenean, askoz neska gehiago hasi ziren sarbide-azterketa egiten eta onarpenerako kualifikazioa lortzen.

Bat-batean, unibertsitateak “dilema” bat zuen: lehen aldiz, sarbide-azterketa gainditu zutenen %60 baino gehiago emakume gazteak ziren. Onarpen-batzordea nahasmen batetan murgilduta ikusi zen. Nola izan zezaketen euren ikasleen artean sexuaren arabera horren proportzio desorekatua? Nola izan zitzaizketen neska baino mutil gehiago ikasleen artean? Beraz, estatistikak albo batera utziz, nesken %50 baino ez zuten onartu, eta mutilentzat plazen beste %50a mantendu zuten. Unibertsitateko agintarientzat, “bidezko” konponbidea izan zen.

Ez al da interesgarria, unibertsitatearen ia 70 urteetan, ikasleen %100, %90, %80 eta %70a mutil gazteak izatea, eta hori “desorekatutzat” ez jotzea? Zergatik izan zen kezkatzeko arrazoia, emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa izaten hasi zenean bakarrik?

## ESTATUA

Azkenik, Estatuaren -gubernua, botere judiziala, legea aplikatzeko makineria eta makineria administratiboa barne hartzen dituen- erakunde garrantzitsua da, botere-egitura nagusiak zeharka babesteko, eta botere-egitura horiek babesten dituzten ideologiak erreproduzitzeko. Baina Estatuaren botere-egitura eta ideologia horiek aldatzen saiatzen den erakundea ere izan daiteke. Estatuak eta bere organismoek botere-egiturak zuzenean edo zeharka nola babesten dituzten erakusten duten adibide asko daude, bereziki genero-arauari buruzkoak direnean.

Adibidez, genero-aurreiritziak eta beste gizarte-aurreiritzi batzuk oso argi ikus daitezke herrialdearen legeetan. Herrialde gehienetan, adibidez, bortxaketaren biktimak frogatu behar izaten du delitua gertatu dela, ez akusatuak. Sexu-erasoen kasuetan, frogei eta prozedurei buruzko arauak ez dute generoa inolaz ere kontuan hartzen, eta bortxaketa bat bezain lotsagarria den zerbait salatze horren lotsagabea bazara, errukirik gabe tratatzea merezi duzunaren mezua helarazten dute. Horrek, emakume bat sexualki bortxatua izan denean, janzkeraren, mugimenduen eta portaeraren arau nagusiak betetzen ari ez zelako, edo “bere gizonak” haren “ohorea” babestu ez zutelako gertatu dela bezalako ideia patriarkalak errepikatzen ditu. Horiez gain, beste lege eta politika batzuek ere, genero-aurreiritziak sakonki errotuta daudela islatzen dute. Gubernuek “lurrik gabekoentzako lurra” edo “nekazariarentzako lurra” edo ongizate sozial edo ekonomikorako beste plan batzuk hornitzen dituztenean, ezinbestean “familia-burua” den gizona izaten da lurra jasotzen duena. Hori bera gertatu da, lurraren jabe beti emakumeak izan diren komunitate matrilinealetan ere.

Testuinguru askotan, baita emakumeen eskubideak defendatzeko edo genero-berdintasunean aurrera egiteko lege oso aurrerakoiak onartu izan direnean ere, lege horiek aplikatzeaz arduratzen direnek jarrera oso patriarkalak izaten dituzte, edo euren sinesmen eta aurreiritzi pertsonalak tartekatzen dituzte, legeak bultzatzen dituen balioak kontrajarriz. Dibortzioa lortzeko, etxeko indarkeriari edo emaztearen kontrako tratu txarrei aurre egiteko edo sexu-erasotzaileak zigortzeko neurri legalak hartzen dituzten emakumeek, “defendatzen” dituztenen amorru ideologikoari aurre egin behar diote. Poliziak eta epaileak izan ohi dira emakumeari errieta egiten lehenak, lege horiek erabiliz senarra edo familia “lotsarazteagatik”.

Zentzu askotan, instituzio horiek ez dute bakoitza bere aldetik jarduten, besteekin batera baizik, sinesmen eta arau ideologiko patriarkalak, feudalak edo arrazialak betikotzeko. Gobernuak eta sektore pribatuak, batzuetan, elkarrekin lan egiten dute herri indigenei beren lurak kentzeko, errendimendu handiko meatze-ustiapenak sustatzeko edo zentral elektriko garestiak eraikitzeko. Herrialde askotan, Estatua eta buruzagi erlijiosoak azpijokoan aritzen dira emakumeen, gutxiengo erlijiosoen edo gutxiengo sexualen eskubideak urratzen dituzten legeak eta politikak sustatzeko. Horregatik, “instituzioak” deituriko zutabea botere-egitura bat babesteko kohesioko indar bat bezala ulertu behar dugu, nahiz eta instituzio horien barruan beti egoten diren ekintza horiekin bat ez datozen pertsona eta elementuak, hauen norabidea aldatzen saiatzen direnak justizia sozialaren eta generoaren helburuekin bat etor daitezten.



# Beldurraren eta indarkeriaren papera



**Interesgarria da emakumeen eskubideen edo genero-berdintasunaren alde lan egiten dugun gehienok beldurra eta indarkeria –batik bat, indarkeria– pribilegioa eta botere maskulinoa zaintzeko eta emakumeak azpian mantentzeko arma nagusienetako bat direla ulertzea.**


Baina behin ideologiak betetzen duen funtzioa ikusi ondoren badakigu hau botere-egitura patriarkalak eta beste egitura sozial eta ekonomiko batzuk babesteko tresna oso indartsua dela. Izan ere, indarkeria baino askoz tresna eraginkorragoa da; indarkeria desordenatua baita eta etengabeko baieztapena eskatzen baitu.

Bestalde, badakigu edozein botere-egitura zapaltzaileri erantzun eta erresistentzia egingo zaiola, pertsona batzuegatik behintzat. Beti egongo dira, gizartean duten posizioa onartzeari edo egokitu zaien lekuan mantentzeko sortutako arau eta erregelak betetzeari uko egiten diotenak. Historian zehar, emakumeek arau patriarkalei aurre egin diete. Historian zehar, arraza, kasta eta talde etniko zapalduak altxatu egin izan dira baztertzeko zituzten egituren kontra. Eta, gaur egun, gero eta LGTB, desgaitu edo sexu-langile talde gehiago ikusten ditugu estigmaren, diskriminazioaren eta bazterkeriaren kontra borrokatzen. Erresistentzia horrek botere-egitura nagusiak eta horiek kontrolatzen dituzten eliteak mehatxatzen hasten dituenean, eta ideologiaren armek eta arau sozialek ez dutenean erresistentzia hori kontrolatzea lortu, orduan mehatxua geldiarazteko indarkeria erabiltzen da. Emakumeen kasuan askotan, indarkeriak berak baino gehiago, beldurraren edo indarkeriaren mehatxua da arau sozialak haustea eragozten diguna: gauzak gehiegi desafiatuz gero, ostrazismora kondenatuak izateko beldurra; gaizki jantzen bagara, edo leku jakin batzuetara bakarrik edo gauzez joaten bagara, indarkeria edo jazarpena pairatzearen beldurra.

Horregatik, garrantzitsua da indarkeria botere-egitura baten azken baliabidea delaz ohartzea, eta ez haren kontrol-arma nagusia. Baliabideen kontrola, ideologia, arau sozialak eta haien interesak babesten dituzten erakundeak askoz ere hedatuagoak eta eraginkorragoak dira. Horregatik, garrantzitsua da gure estrategiek kontrol-mekanismo askoz garrantzitsuagoei heltzea, eta ez indarkeriari bakarrik.



# Nola sortzen eta mantentzen dira botere-egiturak?



Hala ere, denok dakigu indarkeria -ez bakarrik emakumeen aurkakoa, baita beste genero-identitate batzuen eta sexu-orientazio diskriminatuen aurkakoa ere (transexualak, gayak eta lesbianak) - areagotzen ari dela ia mundu osoan. Kaleko jazarpena, bortxaketak, etxeko indarkeria, azidoarekin burututako erasoak, indarkeria eta abusu digitala daude, besteak beste. Baina indarkeriaren gorakada hori emakumeek eta beste genero-gutxiengo batzuek azken 50 edo 100 urteotan lortu izan dituzten aurrerapen handi horien kontrako erreakzio gisa ulertu behar ditugu. Legedian, hezkuntzan, enpleguan eta parte-hartze politikoan eskubide-berdintasuna lortu dugu. Gure gorpuzak bortxatzen zituzten eta gure askatasunak mugatzen zituzten ohitura eta tradizio askoren kontra borrokatu izan dugu (emakumeen mutilazio genitalaren, haurren ezkontzaren, behartutako ezkontzaren, alargunen jazarpenaren, bortxaketaren eta etxeko indarkeriaren aurka). Emakume asko lan-munduan sartu dira, ekonomikoki independizatzen ari dira eta mota guztietako diskriminazioari, gehiegikeriari eta indarkeriari aurre egiten diote. Bereziki, maskulinitatearen eta “benetako gizona” izatearen nozioei aurre egin diegu, matxismoaren kultura bere adierazpen anitzetan kritikatu eta desafiatuz. Horiek guztiak mehatxu izugarriak dira boterearentzat eta pribilegio maskulinoarentzat (botere patriarkala). Emakumeen eta genero-gutxiengoaren aurkako geroz eta handiagoa den indarkeriak sorburu asko ditu, baina hein batean, behintzat, horrexegatik ematen da.

Laburbilduz, botere-egiturak, hasiera batean, pertsona batzuek baliabide materialen, giza-baliabideen eta bestelako gainerako kontrol handiagoa lortzen dutelako sortzen dira. Hasieran, indarkeria erabil dezakete beren kontrola ezartzeko, baina laster sortzen dute baliabide eta desberdintasunen banaketa desberdin hori justifikatzen duten ideologiaren mekanismo eraginkorrena. Ideologia horiek haurtzarotik hainbat erakundetan, hala nola familian, eskolan edo erlijioan, mundu

guztiari irakasten zaizkion gizarte-arauak dira, eta, beraz, zapalduak eta diskriminatuek ere onartzen dute botere-egitura. Arau sozial horiek beste erakunde batzuek indartzen dituzte, hala nola merkatuak, Estatuak eta haren besoek (sistema judizialak, poliziak, administrazioak, etab.). Beldurrak ere jendea bere lekuan mantentzen laguntzen du. Baina, mekanismo guzti horiek erabilia ere, pertsona edo talde batzuk, zuzenean nahiz zeharka, arauak hautsi edo botere-egiturari aurre egiten diotenean, botereak, berriz ere, indarkeria erabiltzen du erresistentzia hori geldiarazteko.

Hortaz, botere-egiturak eraldatzeaz ari garenean, existitzen den botere-egiturari eusten dioten mekanismo konplexu horiek ulertzeko eta horiei erantzuteko estrategiak sortu behar ditugu. Horrek, ageriko botereari ez ezik, botere ezkutuari eta ikusezinari ere heltzea esan nahi du. Hau da, jendeak baliabideak eskuragarri izan ditzan eta hauenganako kontrola izan dezan lan egiteaz gain, ideologiaren egitekoaz konturatzen, hau nola barneratzen eta onartzen duten, eta sinesmen hau adierazteko baliatzen diren arau sozialak ezagutzen lagundu behar diegu. Gizarteko instituzio nagusiek -familia, erlijioa, merkatua, Estatu- arau horiek errepikatzeko eta talde nagusien botereari eusteko duten modua zalantzan jartzea litzateke.

Horrek lan handia dirudi, ia ezinezko zeregina, baina egingarria da, eta, gainera, egin izan da. Behin eta berriz, mundu osoan, mugimendu botereitsu eta indartsuak egon dira eta daude, emakumeen mugimenduak batez ere, botere-egiturak astindu dituztenak, bereziki botere patriarkala, eta emakumeentzat lorpen izugarriak lortu dituztenak. Egin izan ez balute, ez zinateke liburuxka hau irakurtzen egongo, ezta baztertuta dauden edo ahotsik ez duten pertsonak nola ahaldundu pentsatzen ere. Zure ingurura begiratzen baduzu, zure komunitatean, probintzian edo herrialdean bertan, aldaketa sakona eragin zuten mugimenduei buruzko istorio inspiratzaile asko egongo dira.



Emakumeek beti egin izan diote botereari aurre. Beraien istorioak aurkitu eta izan itzazu hurbil, horietan **ZURE BOTEREA** dago eta!

## SRILATHA BATLIWALA

Srilatha Batliwala Ezagutzen Sormenaren eta Lidergo Feminis taren zuzendaria da CREAn (Creating Resources for Empowerment in Action), New Delhin, Indian egoitza duen Giza Eskubideen erakun erakunde feminista batean, alegia. Bere egungo lana Hegoalde Globalean gazte aktibisten gaitasunak garatzera eta horiei tutoretza ematera, eta pertsona marjinatuenekin lan egiten duten aktibisten praktika eta pertzepziotik abiatuta ezagutza berriak eraikitzea zuzentzen da.

CREAn lanean hasi baino lehen, Srilathak AWIDen (*Association for Women's Rights in Development*) bekadun modura, Harvard-eko Unibertsitatearen *Hauser Center for Nonprofit* zentroan gizarte zibilaren ikerlari gisa, eta Ford Fundazioan, gizarte zibilaren programaren arduradun gisa lan egin zuen. Srilathak Indian egindako oinarriko lanagatik ibilbide luzea du. Emakumeen eskala handiko mugimenduak sortzen parte hartu zuen, eta hauek Mumbaiako komunitate behartsuenetako eta Karnataka estatuko (India hegoaldea) barruti marjinaletako landa eta hiri eremu etako milaka emakume mobilizatzea eta ahalduntzea lortu zuten.

Srilathak emakumeekin erlazionaturik dauden gaiet buruz lan asko argitaratu izan ditu, eta hauen ahalduntzeari buruzko lanagatik bereziki ezaguna da. Haren azken argitalpena bere idatzien bilduma bat da (*Engaging with Empowerment - An Intellectual and Experiential Journey*, Women Unlimited, 2014). Giza-eskubideen, emakumeen eskubideen eta garapeneko nazioarteko eta Indiako hainbat erakundeetako administrazio kontseiluetako kide izan da.

Srilathak bere base bikietatik bizi eta lan egiten du, Bangalore eta Coonor, Nilgiriko muinoetan, India hegoaldean. Bere lau biloben amona feminista aktiboa izateaz harro dago. Halaber, “adineko” lider feminista bat izateko era berriak zehazten ahalegintzen da: mugimendu feministaren “amona” bat izateko eta lider feminista gazteenei eta beste mugimendu batzuetakoei laguntzeko, babesteko, eta hauetatik ikasteko. Lanean ari ez denean, labea berotzen, josten eta Netflix ikusten aritzen da.

## CREA

CREA 2000. urtean sortu zen, eta giza-eskubideen aldeko mugimendu feminista bat da. Egoitza New Delhin du, Indian. Egoitza Hegoalde Globalean duen, Hegoaldeko feministek zuzentzen duten, eta toki-, nazio-, eskualde- zein nazioartemailan lan egiten duen **giza-eskubideen aldeko nazioarteko erakunde feminista** bakarrenetakoa da.

CREAk **mundu bidezkoago eta baketsuago** bat irudikatzen du, non pertsona guztiak duintasunez, errespetuz eta berdintasunean bizi diren. CREAk lidergo feminista eraikitzen du, emakumeen giza-eskubideak sustatzen ditu eta pertsona guztien sexu- eta ugalketa-askatasunak bultzatzen ditu.

Inprimatzea  
TINTA Inprimategia

D.L./L.G.: D-00705-2023